


Urte bateko olatua gelditzeko bidean /6




Chivite:
"Legegintzaldiko
konpromiso guztiakin
urte bateko
atzerapena dugu" / 2-5

**Arbizuarrek plazan
estalpea nahi duten
edo ez erabakiko
dute herri
galdeketa bidez / 9**

**Naiara Diezek
saskibaloia
utziko du
denboraldi bukaeran,
gorenean dagoela / 15**

**59 txirrindulari ditu
Burunda taldeak,
aurten 17 berri
eta horietatik
10 emakume / 17**

**'Liburu eremua. Eremu
librea' erakusketa
mustu dute Altsasun,
sarearen
70. urteurrenean / 23**



"Zure neurria"
**ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA**

2021 martxoak 26

(Publizitatea martxoaren 15erako kontratatu)
948 564 275 (1 luzapena) | 661 523 245



Maria Chivite Navascues, Nafarroako lehendakaria.

"Konpromisoekin urte bateko atzerapena dugu"

MARIA CHIVITE NAVASCUES NAFARROAKO LEHENDAKARIA

Koronabirusak markatutako legegintzaldian, Nafarroako Gobernuako presidentek alkate eta ekonomia eragileekin bigarren ez bildu ondoren hartu du GUAIXE

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Lehendakariak Europako funtsak, udal finantziarioa, Haur Hezkuntza, pentsioak, bizikidetzeta eta azpiegitura izan ditu hizpide. **Next Generation Europako funtsak orain irits...**

Ikusiko dugu noiz iristen diren. Duela hilabete Europako Batzordeak araudia onartu zuen. Ondoren, Estatuako plana onartu behar da, eta gero erkidegoak sartuko gara. Oraindik gelditzen da. Berreskurapen Nazio Planak dira hauek. Europak funtsa jarriko du eta Estatuak gobernuak dira berreskurapen planak aurkezten dituztenak. Espainiako Gobernuak Europarekin zirriborroa negoziatzen hilabete batzuk darama. Estatuak jasoko dituzte sosak. Ministerio bakoitzak bere leihatila izanen du. Ministerio batzuk lurraldeen arabera banatuko dute dirua. Beste batzuetan norgehiagoka izanen da eta enpresak edo entitateak aurkezteko aukera izanen dute.

Guk Nafarroa Suspertu Plana egin genuen, nondik jo nahi genuen zehazteko eta Europak dioenarekin oso lerrotatuta (eraldaketa digitala, hitzarmen berdea eta gizarte eta lurralde kohesioarekin zerikusia dutenak). Ministerioetara jotzen ari gara zer egin nahi dugun aurkeztera. Momentuz, leihatila ofizial bat bera ere ez baitago zabalik.

Aurreratzeko bi bulego sortu ditugu. Ogasun Departamentukoaren egitekoa kontrola da, dirulaguntzen exekuzioan zorrotz aritu behar baita. Bestetik, Herriarrekiko Harremanen Departamentuak Europarekin zerikusia duen guztian gobernuaren aholkularia izanen dena.

Sosak Nafarroan ere eskualdeen artean banatuko dira?

Jakina. Ez dakigu nola, Estatuak zehaztu behar duelako. Baina bileretan ogasun kontseilariekin batera Espainiako Udala eta Probintzia Federazioko presidentea dago. Nafarroan laguntza deialdiak ere egonen dira.

Europako funtsak eman ondoren, murrizketak egonen dira?

Guk dakigula, ez. Europarekin negoziatzen ari dena da zerga arauen lasaitzea 2021eraino beharrean 2023ra arte izan dadila.

Aurreko legegintzaldian Tokiko Mapa berria onartu zen. Sortuko liratekeen eskualdeetako bat litzateke Sakana. Noizko garapena?

Eskualde batek berak ere ez du eskatu hala eratzea. Gobernu Akordioan jasoa dago lege hori aztertu behar dugula, kontsentsu zabalagoa izan dezan. Adostasun zabalagoa, udaletan, mankomunitatetan edo gobernuaren egon litezkeen gehiengo politikoei lotuta ez egotea. Prozesu horretan gaude. Eta gauza bera udal finantziarioarekin eta Toki Azpiegitura Planarekin. Aurten negoziatu behar ditugu. Joan den urtean egin nahi genuen, baina ezin izan genuen egin.

Udal finantziarioa, irizpideak?

Ezin da denen gogoia bete. Baina udalek ematen dituzten zerbitzuetara hurbildu nahi dugu.

Inbertsioak egiteko udalak Nafarroako Gobernuaren menpeko dira.

Orain udalek beraien diruzaintzako gerakina erabiltzeko aukera izanen dute eta udalek badute dirua egiteko.

Zer egitea aholkatuko zenieke?

Tokiko administrazioaren modernizazioa oso garrantzitsua da. Batetik, digitalizazioarekin eta zerbitzuak ematearekin zerikusia duen guztia: erregistroak, herriarrekiko harremana... Bestetik, Europak eraikuntza jasangarriekin lotutakoari erreparatu dio.

GEUREA

Sakanako Institutua



IES.ALTSASU.BHI

Oraindik ez dago zehaztuta, baina pentsatzen dut dirua izanen dela hornidura sareekin lotura duen guztiarendako, ura aurrezteko.

Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretu berria esku artean duzue.

Foru Dekretua baino epaitegiak indarrak gabe utzi dituen artikuluhoriek ea nola konpontzen ditugun, dekretuaren gainontzeko parteak segitzen baitu. Gobernu bazkideen artean konpondu beharreko desadostasunak daude. Lantalde batean adostasuna lantzen ari gara. Honekin eta legegintzaldiko hasierako konpromiso guztiarekin urte bateko atzerapena dugu. **Haur Heziketaz (HH) aritzeko lantaldea sortu da. 0-3 plataforma kexu da lantaldea ez dela bildu?**

Zikloaren doakotasunerantz pausoak eman nahi dituzten udalak badaude, egin dezakete, eskumenak dituztelako. Eman behar ditugun pausoak teknikoak ez dira errazak. Lehenik, Hezkuntza Departamentuan HH publikoen egitura organikoa eratzea da eta hara pasatzea gaur egun Gizarte Eskubideen Departamentuaren menpe dauden HH publikoak. 0-3 hezkuntza gaia izatea nahi dugu. Ez da erraza, Gizarte Zerbitzukoetan dauden lan profilak ez direlako Hezkuntzakoan daudenak. Agian ikastetxe batzuek 0-3 baldintzak ez dituzte betetzen. Hezkuntzara pasa ondoren, antolatuta, haiek arautzen dituen dekretua egin eta, hori eginda, 0-3ren doakota-

sunerantz jotzea da, hasteko, zaurgarrienak diren familietatik hasiz. Gobernuan ados gaude.

Toledoko Itunaren aurreakordioak ez ditu pentsiodunen mugimendua eskaerak asetzen.

Aurreakordio bat ez da akordio bat. Beraz, nire konpromisoa hartuko den akordioarekin da. **Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izateko Nafarroako Gobernuak pentsio txikiak osatzea eskatzen du pentsiodunen mugimendua.**

Gaur egun gaztediarekin adinekoekin baino arazo handiagoak ditugu. Gazteen langabezia, lan prekarietatean buklean sartuta daudenak, aurreko krisialdian lan merkatutik atera zirenak, behin behinean lanera bueltatu zirenak eta orain, berriro, lan merkatutik atera direnak. Etorkizuna moztan ari gara haiei. Uste dut horiek izan behar dutela lehentasuna. Ikusten dugulako zein familia berri sartzen diren Bermatutako Errentan, zein pertsona gelditzen diren langabezia... gazteak. Denetarako baliabiderik ez dugu eta lehentasuna orain beraiek dira.

Gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea eskatzen dute, etorkizunean pentsio duinak izateko.

Eztabaidatzen ari den gaietako bat da: gutxieneko soldata igozteak, pentsioen kotizazioan eta jubilazioan eragina duela. Hori Estatuaren eremua da.

Nafarroa eta EAE AHT bidez lotzeko proiektua zehazteko dago?

Prestazio Handiko Trena ez da Nafarroaren eskumena. Loturarena ez dakit zertan den. Uste dut hiruko bilerarik ez dela izan une honetan. Prestazio Handiko Trenaren aldeko apustua oso argia da bai Espainiako Gobernuan bai Europan. Gainera, Next Generation laguntzen finantziario lerroetako bat da. Nafarroan tren garraio gutxien egiten duen erkidegoetako bat da. Gu % 2 edo 3an gaude, Europako batz bestekoa %18koa denean. Garraio jasangarriago baten alde egiten badugu, konbustio ibilgailuetatik trenera aldatu behar dugu. 2030 agendako konpromisoa da 2050erako garraioaren erdia trenegitea. Trenbide berriendakoa garapen berrietarako dirua egonen da. Mugikortasun jasangarriago baten aldeko apustua da.

Eta horretarako ez da nahikoa trenbidea bikoiztea eta Europako trenbide zabalera ezartzea?

Ez. Ez duelako bermatzen korridoreetan egotea. Kantauri eta Mediterraneo tren korridoreen lotura baita Nafarroa. Gainera, logistika guneak lotuz, Valentzia edo Bartzelonakoa Bilbokoarekin lotuz. Eta Nafarroa hor dago. Gainera, posiblea da finantziarioa, neurri handi batean, Europatik etor daiteke. Trenaren aldeko apustu horregatik.

Gaur egungo tren zerbitzuak ez du ibarra egituratzen. Aldiriko trenen aldeko apusturik egiten da?

Trena ez da gure eskumena. Baina Next Generation-en oinarriko sare (aldiriak) eta Europako sare orokorraz (lehen aipatutakoa) hitz egiten du. Ez dakit Sustapen Ministerioak aldirikoekin zerbait egingen duen. Lurralde kohesioa mugikortasunarekin eta nola konektatzeko moduarekin zerkusia du. Bata eta bestea ez dira bateraezinak. **Castejon-Muru Artederreta-Itsaso linea egin nahi da Gipuzkoa eta Nafarroa lotzeko. Ibarreko udal gehienak kontra daude.** Ingurumen balorazioa egitea falta da eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Baina industria garapenerako ezinbesteko azpiegitura da. Energia nahikotasuna ez izatean gertatzen dena da... Industrialdeei argindarra ematen diezu edo ez dira garatuko. Zer nahi dugun planteatu behar dugu.

"UDAL FINANTZIAZIOA UDALEK EMATEN DITUZTEN ZERBITZUETARA HURBILDU NAHI DUGU"

"GUK DAKIGULA, EZ DA MURRIZKETARIK IZANEN EUROPAKO FUNTSAK JASO ONDOREN"

Bost autobiatan bidesariak jartzeko asmoa duzue. Auzitegi Gorenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehen araudiaren kontrako epaia eman zuen joan den astean. Beste bat dute indarrean.

Epaia eman zuen garraiolari batzuen eta besteen artean diskriminatzen zelako. Ezin ditugu garraiolari nafarrak, edo kasu horretan, euskaldunak, beste garraiolarietatik bereizi. Nafarroan hori egin nahi dugu. Europak bide hori hartu du: kutsatzen duenak ordaindu behar du. Parlamentuan gehiengoak onartu du errepideen kudeaketarako enpresa publiko bat sortzea eta bidesarietatik lortutako guztia errepideetan inbertitzera bideratzeko. Zeren errepideetan inbertitu gabe urteak daramatzagu eta inbertsio defizit izugarria dugu.

Sakanako 3 autobideetan jarriko dira bide sariak. Ibarreko kamioilariak ez dute batere gogoko.

Europako zuzentarauari segitzen diogu. Hasieran moduren batez haien aldeko diskriminazioa egitea pentsatu zen, baina epaia-oren ondoren, ezinezkoa da.

Kutsatzen duenak ordaindu behar du. Irizpide hori jarraituz, zergatik ez ibilgailu guztiek ordaintzea?

Zure ibilgailuak kutsatzen duenaren arabera pagatzen ari zara dagoeneko. Zeren zure zirkulazio zerga duzun ibilgailuaren arabera dago. Gutxien kutsatzen dutenekiko diskriminazio positiboa dago dagoeneko.

Bizikidetzeta

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak lantzen dituen hainbat gairen inguruan iritzia eman zuen Chivitek. Hasteko, 1936ko estatu kolpearen ondoren hildakoak lurpetik ateratzeko elkarteekin elkarlanean segituko dutela ziurtatu zuen. "Lurpetik atera, identifikatu eta aitortzarako apustua argia da. Lan oso ona egiten ari da. Kezkatzen nauena da gorpuzkia identifikatzeko DNA laginak norekin kontrastatzeko aukerarik ez izatea, senideak adinean oso aurrera baitoaz".

Joan den astean AVTren ordezkarietarekin elkartu zen lehendakaria. Biktimen elkarteek eskatzen duten gaietako bat da ETArekin argitu gabeko atentatuak argitzea. ETAK Altsasun Sebastian Arroyo Gonzalez hil zuen. Bi sarekada egin ziren, bi epai egon ziren eta

auzia preskribitua dago. "Atentatu horiek argitzea Espainiako Gobernuaren esku dago. Dena den, gai horietan Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak dira gai horietan aritu direnak eta ikerketak beste eremu batetik egiten dira. Baina, dudarik gabe, Nafarroako Gobernuaren erabateko elkarlana". Biktimen beste kexuetako bat presoie aske gelditu ondoren egiten zaizkien harrerak dira. "Ministroak aurrekoan iragarri zuen araudiaren aldaketa bat egitea pentsatzen ari zela halakorik ez gertatzeko. Min gehiago gehitzea baita. Biktimekiko errespetu falta ere bada. Hiltzaileei ezin zaie heroi gisako harrerak egin. Indarkeria kasu batean ere ezin da txalotua izan".

Eskuin muturraren edo funtzionario publikoen motibazio politikoko indarkeriak eragindako biktimen aitortzarako legea onartuta. Mikel Arregi Marinen kasuan epaia dago. Baina argitu gabeko bi heriotza daude: Josu Zabala Salegi ETako

kidearena, suizidio hipotesia familiak ez du onartzen, eta GALek hildako Anjel Gurbindorena, Baltasar Garzonek GAL berearekin lotu zuena. Nafarroako Gobernuak onartutako legeari helegitea aurkeztu zioten eta Espainiako Konstituzio auzitegia ebazteko zain dago. "Uste dugu aurki emanen duela ebazpena. Biktimak aitortzeko batzordeari buruzkoari jarri zioten helegitea. Batzorde horren eskumenei buruzko lege arloko zalantzak daude. Epaia etortzen denean aktibatuko genuke batzorde hori, pertsona horiek biktimak izan ziren edo ez aitortzeko. Gauza bat epaitegiek esan beharko dute, eta besteak batzorde horrek".

Berriki publiko egindako audioek torturaren praktika lehen planora ekarri dute. Larunbatean egindako manifestazioan Nafarroan 1.000 torturatu izan zirela esan zuten. Erakundeek ikerketa ofiziala egiteko eskatu zieten. "Nafarroako Gobernuak halako ikerketa egiteko

eskumenik ez du. Gu aurreko astean Nafarroako Parlamentuan gertaerak argitzeko eskaerarekin bat egiten dugu. Argi esan ere tortura edo indarkeriaren edozein erabilerekin ez gaudela ados". Tortura jasan dutenek aitortza, erreparazioa eta berriro ez errepikatzen bermeak eskatu dituzte. Lehendakariak halako eskaerarik zuzenean ez du jaso, eta ez daki Herriarrek Harremanetarako Departamentuan jaso duten.

Azkenik, ETako presoek hurbilketa galdetu genion, biktima elkarte batzuen kritika sorraz duena. "Legea betetzen ari da. Ez dira zigor osoa betetzeaz salbuetsi. Horren erabilera politikoa egiten ari da. Jose Maria Aznar gobernuan zela ere egin zuen. Presoen dispersioa babestu zen salbuespen egoeran ez gaude. Egoki markatutako baldintzak betez egiten ari dira lekualdaketa, familia girotik gertuago egoteko. Azken finean, sufrizten dutenak haien familiak dira, ez haiek".



Maria Chivite Nabaskue Nafarroako lehendakaria Altsasun.

"Argia ikusten ari gara"

MARIA CHIVITE NAVASCUES NAFARROAKO LEHENDAKARIA

Gaur 80 urtetik gorakoen txertaketa hasiko da Altsasun, eta "itxaropena" izateko arrazoiak daudela uste du Maria Chivite Navascues Nafarroako lehendakariak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Pandemiaren hasierako uneak ez dakiela nola kalifikatu esan du Maria Chivite Navascues Nafarroako presidentek. Txinan gertatzen ari zela entzuten zuten, baina ez zuten pentsatzen hona iritsiko zenik. "Gertu ikusi genuen arte". Urte gogorra izan dela aitortu du presidentek, baina baikor da. Udarako Nafarroako biztanleriaren "%40 edo 60" immunizatuta egotea aurreikusten dute. Gainera, Osasun departamentuak pandemiaren eragina buru osasunean ikertzen ari dela aurreratu du.

Duela urte bat pandemia iritsi zen. Nola gogoratzen dituzu lehenengo momentu horiek?

Italiako lehenengo kasuaz jakin genuenean konturatu ginen Italian baldin bazegoen gurera ere etorriko zela. Momentu horretan ikusi genuen ez zela Txinan bakarrik gertatzen zen zerbait; etorriko zela. Egia da Osasun Publiko departamentuan hasieratik aritu zela informazioa jasotzen, baina hor konturatu ginen benetan gure gauza ere bazela. Urduritasun

eta kezka handiarekin bizi izan nuen. Lehenengo arazoa izan zen NBEak ez zeudela. Erostera joan ginen eta ez zeuden. Nafarroako enpresen salerosketa sareetatik tiratu behar izan genuen Txinan erosteko. Hausnartzera eraman gintuen, produktu batzuk hemen ekoizteko ahalmena izan beharko genukeela. Orain ari dira Nafarroako enpresak gauza horiek egiten. Eta, bereziki, ezjakintasun handiarekin bizi genuen: zeintzuk dira ondorioak, zein izango da tratamendua, testak falta ziren momentu horretan merkatuan ez zeudelako... Oso gogorra izan zen. **Eta nola kudeatu zatorrena?**

Egunero zerbait ikasten genuen. Asko irakurtzen genuen; zientzia aldizkariak eta paperak bilatzen genituen gauzak nola zihoazen irakurtzeko. Nafarroako Osasun Sistemari buruz ere izugarri ikasi dut. Osasun laguntza sistema osoa berrantolatatu genuen. Ospitaletan bi zirkuitu egin behar izan ziren. Osasun etxeetara koronabirusarekin gaixo zegoen jendea joaten zen eta bestelako gaixotasuna zutenekin elkartzan ziren.

Berrantolaketa oso bat egin behar izan zen. Osasun departamentuak materiala ekartzeko hegazkinak alokatzen ere ikasi zuen. Trebakuntza oso handia izan zen. Sintomak zeintzuk ziren ere pixkanaka jakin genuen; izan ere, usaimena galtzea sintoma bat zela jakin arte denbora pasatu zen. Beraz, trebakuntza ere oso azkarra izan zen. Informazioa elkarbanatzea ezinbestekoa izan da, beste erkidegoekin, Espainiako gobernuarekin baita nazioartean ere. **Aurretik ez zegoen plangintzarik. Ezinezkoa zen horrelako zerbait gertatzea?**

Dirudienez orain epidemiologoek esaten dute izan zitekeela gertatu ahal zela horrelako zerbait. Baina momentura arte, ez. Oso urte zaila izan da, min handikoa. Erresidentzietan lan egiten duten pertsonak esaten dutenean ezin zenez inor sartu, adinduen agurra haiei eskutik helduta izan dela... Drama handia izan da. Ni ikasi dugun guztiarekin gelditzen naiz; osasun sistema osoa eta erresidentzia sistema indartzeko balio izan digu.

Erabaki gogorak hartu behar izan dituzue, besteak beste, neurri murriztaileak ezartzea. Zer sentitu zenuen momentu horretan?

Hasieran, lehenengo olatuan, goitik etorri zen erabakia. Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen eta denak etxera bidali gintuen. Baina bigarren olatuan alarma egoera batean erkidegoek erabakiak hartzen genituen. Momenturik zailenetariko orduan izan zen, nire ustez. Urriari datu oso kezagarriak genituen eta mahaian osasun arloko agente guztiak, bi presidente ordeak eta ni geunden. Nazioarteko txostenak begiratzen genituen eta arrisku handiko eta kutsatze maila altueneko lekuak aipatzen zituzten: etxebizitzetan, arlo pribatuan, eta ostalaritzaren barrualdean. Erabaki genuen etxean bakarrik familiak egotea eta ostalaritza ixtea.

"HASIERAKO UNEAK URDURITASUN ETA KEZKA HANDIAREKIN BIZI IZAN NITUEN"

"PANDEMIAREN ERAGINA BURU OSASUNEAN IKERTZEN ARI DIRA DAGOENAKO"

Erabaki hori hartu genuenean pentsatu nuen: kontziente gara milaka familiei soldata kentzen ari garela? Hartu dugun erabakirik zailenetariko izan da. Argi geneukan ixten genituzenez, laguntza pakete bat jarri behar genuela mahaian gainean, ixtera derriortzen genituelako. Arazoa ez da ostalaritza delako, ostalaritzagatik, arazoa da ostalaritzaren barruan egiten dugunagatik: maskarak kendu behar ditugu kontsumitu ahal izateko, toki itxiak dira, aireztapen gutxi dute...

Nafarroa osoan neurri berdinek ezarri dira, herrietako intzidentzia tasa kontuan izan gabe.

Normala da biztanleria handiago dagoen nukleoetan intzidentzia handiagoa izatea. Kutsatzea handiagoa da mugimendu soziala handiagoa denean. Orduan, helburua da mugimendua ekiditea. Altsasuko tabernak ixten badituzte, baina Olaztikoak ez, jendea hara joango da. Nik uste erabakitakoak ongi funtzionatu duela. Guk ez genituen herriak ere itxi nahi, intzidentzia altua zuten herriak salbuespen izanda. Jendea ezin da tabernetara joan, baina lagundu digu txirritularekin ibiltzera, korrika egitera, mendira joatera... Kultur ondarea ikusteko ere aukera dago. Modu orokorrean hartu behar genuen erabakia. Buru osasunaren aldetik, aisialdiarendako mugimendua kontuan hartuta, gauzak egiteko aukera zegoen. **Eta, orduan, masifikazioaren arazoa dator.**

Hainbat lekutan, bai. Aurreko egunean Erronkarin arazoa aipatu ziguten, esaterako. Bai, baina gurea balorean jarri dugu. Pirinioetako jendea Bardeak ezagutzera joan da, eta Erriberakoak mendia ezagutzera joan dira. Instagrameko argazkiak ikusten dituzu eta... Horregatik uste dut funtzionatu duela. Ezin ditut datu objektiboak esan, baina herrietako itxiera ez egitea neurri ona izan da. Beste balore batzuk atera ditugu.

Buru osasuna aipatu duzu, nola ikusten dituzu herritarrak?

Osasun saila pandemiaren eragina buru osasunean ikerketa egiten ari dagoeneko, nabaritzen ari garela. Antsietate eta horrelako kasuak nabaritzen ari dira osasun etxeetan. Txosten askok pandemikoari buruz hitz egiten dute jada, eta egoera hau izaten ari den eragina aztertzen ari dira. Gehiegi irauten ari da.

Txertoaren itxaropena dugu. Haurretan ere nabaritzen ari da. Badira zenbait haur beldurra hartu dutenak, baita adineko jendeak ere. Orain txertoa jasotzen ari direla arnas pixka bat hartzen ari dira. Baina badago jendea ez dena ausartzen kalera ateratzera, eta hori ere kontuan izan behar dugu. Gaia landu beharko dugu.

Zer moduz doa txertaketa?

Datu guztiek baikorrak izatera eramaten gaituzte. Martxoaren 5ean izan zen lehenengo eguna erresidentzietan zero kasu egon zirena. Txertatu genuen lehenengo arloa sozio sanitarioa izan zen heriotza tasa handiena arlo horretan izan delako. Orduan, nahiko lasai gaude kutsatu daitezkeelako, baina ez du osasunean inpakturik izango. Britainia Handitik eta txertaketa nahiko aurreratuta doazen herrialdetan, egia esan, Espainiaren aurretik daudenak ez dira asko, kutsatze kasuen inpaktua izugarria izaten ari da. %95 jaitxi dira adinduen kasuak. Gaur Sakanan 80 urtetik gorakoekin txertaketarekin hasiko gara. Zer daukagu mahai gainean? Agian txerto kopurua ez dela gustatuko litzazigukeena. Txerto kopurua handitzen denean, gu prest gaude txertaketa erritmoa bizkortzeko. Pasatu gara egunean 500 txerto jartzetik, 3.000 jartzera. Orduan, egiteko baliabideak ditugu. Txertoen horniketa falta da. Dirudienez apirilean eta maiatzean erritmoa azkartuko da.

Talde immunitate noizko?

Gaur egun ditugun datuekin, eta betiere farmazeutikoez ez badute huts egiten, udarako immunitatearen %40 edo 60an egon ahalko gara. Kutsatuen kasuetan oinarritzen gara, baina aurrerago ez gara datu horietan oinarritu beharko. Kutsatutako kasuek osasun zerbitzuan inpakturik ez badute, ingresurik eragiten ez badute, kasu positiboen datua ez da hain garrantzitsua. Beraz, garrantzitsuak izango dira ospitalera iristen diren kasuak, osasunean kalte handia eragiten dutelako. Beraz, behin 60 urtetik gorakoak txertatuak daudenean nik uste egoera guztiz desberdin batean egongo garela. Momentuz, iraun behar dugu.

Neurri murriztaileek jarraituko dute, gutxienez Aste Santuko oporren ondoren arte.

Idea horrekin gaude. Osasun publikoko arloa astero elkartzeko da. Nafarroa ideia horrekin zihon, eta mugakide diren he-

rrialdeekin bilera informalekin egin genituen. Guk argi geneukan egin behar genuela, baina ezin ginen bakarrik gelditu. Bestela, borrok oso gogorra izango zen. Besteak ere alde zeudela zirudien. Nafarroako erabakia zen itxiera perimetrala eta, bereziki, etxeratze agindua mantentzea. Lerro hori jarraituko da. Judizialki dudak dauden arren, Lurralde Batzordean gehiengoarekin onartzen diren erabakiak derrigorrez bete beharrekoak dira. Madrilek ez badu itxi nahi, eta beste guztiak itxita badaude, zu atera zaitzetzke Madriletik, baina ezin izango zara inon sartu. Orduan...

Amaiera ikusten duzu?

Bai.

Noiz?

Tunelaren amaieran argia ikusten ari garela uste dut. Lehen aipatu dudana, erresidentzietan zero kasu lortu ditugu orain %100ean txertatuak daudela. Gustatuko litzaidake ahalik eta lehen izatea, baina txertaketaren erritmoaren arabera izango da. Momentu honetan oraindik iraun behar dugu, behintzat ahulenak txertatu arte. Orain, 80 urtetik gorakoekin hasi gara eta martxoan adin tarte horrekin amaitzea espero dugu, beste adin tarteekin hasteko. Uda partean, ez dut esango ahalko dugunik normaltasun oso bat izan festei begiratuta, gehien bat, baina bai neurri asko altxatzeko aukera izango dugula uste dut. Behintzat, haietako asko.

Pandemiak administrazioarekiko komunikazio telematikoa ekarri du. Baina herritar guztiek ez dute aukera hori egiteko.

Gobernuaren aldetik, banda zabala zabaltzeko plangintza dugu eta bi milioi euro inbertitu ditugu han. Europatik datorren guztiaren ardatz nagusienetako bat da eraldatze teknologikoa. Aurreko astean Hezkuntza departamentuak 5.000 ordenagailu erosi zituen baliabide gutxiko familietan banatzeko. Horregatik, Hezkuntzaren presentzialtasuna sustatu du. Izan ere, ez presentzialtasun horretan marraztu dira arrakalak, ikusi dira desberdintasunak. Presentzialtasuna berdintasun aukera printzipioan oinarritzeko da. Informatika materiala erosten ari gara ahal den neurrian inor atzean ez gelditzeko. Zuntz optikoa ere herri guztietara iritsi behar da, behintzat, industria gunetara iristen ari da.

Eta adineko jendea?



2020ko martxoko konfinamenduan jendea balkoian. ARTXIBOA

Udan kompetentzia digitaletan trebatzeko hainbat ikastaro egin ziren eta mila pertsona baino gehiago trebatu dira. Nafarroako Lan-saretik udalekin hitz egiten ari dira oso ongi funtzionatu duelako eta helburua da jende guztiak egin ahal izatea ikastaroa. Horretarako dirua egongo da. Erresidentzietan kontatzen digutenean bideo deien kontuarekin nola aritu diren... harrigarria da. Egia da trebakuntza falta dela, baina egongo da.

Altsasuko Oinarrizko Osasun Zonaldean hiru mediku daude, eta herritarrek kexu dira.

Ziordian baja bat da eta laster mediku bat etorriko da eta Olatzagutian larrialdi zerbitzuarekin aurrera eramaten ari da zerbitzua. Osasun arloan langile faltarekin arazo bat dugu, eta atzetik dator. Ez da Nafarroako arazo bat bakarrik. Lan publikoko eskaintzarekin konpontzen saiatzen gara. Udan 114 mediku plaza aterako dira. Plantillen egonkortasuna behar dugu. Osasun zerbitzuan behin behinekotasun tasa handia dugu eta ezin dugu onartu. Lurralde politikako ministroarekin bilera bat egin behar dugu gai hau landu behar dugulako. Birtarte tasak mugatuak ditugu eta horrek lan publikoko eskaintzak ateratzeko ere mugatzen gaitu. Gainera, COVID egoerari aurre egiteko profesional gehiago kontratu behar izan ditugu, eta horrek behin-behinekotasun tasan ere nabaritu da. Hezkuntza kontratazio handia egin dugu, eta tasa igo da. Konpondu behar dugu arazo hau. Lan publikoko eskaintza atera behar ditugu. Gai honekin jarri behar gara. Ez dugu bi egunetan konponduko, baina jarri behar gara.


Altsasuko parkean suhiltzaileak falta dira. Deialdia aurreikusten duzue?

Departamentuaren konpromiso bat dago 127 plaza berri ateratzeko. Deialdia egun hauetan aterako da eta 37 plaza aterako dira. Konpromisoekin atzerape-na dugu pandemiarekin dena atzeratu zaigulako. Suhiltzaileen laster aterako da.

Sakanan dugun beste arazo bat, pandemiarekin areagotu dena, autobusen ordutegiena da. Garraio publikoa sustatzeko plangintzarik aurreikusituz duzue?


Nafarroako garraio plangintza birdimentsionatzen ari gara eta 3,5 milioi euro eskaini diogu horri. Horretan ari gara. Zonalde guztiak begiratzen ari gara.

Metatutako positiboak Sakanan




*Osasun eskualdeak

Koronabirus positiboaren ehunekoak



UDALERRIA	Altsasu	Arakil	Arbizu	Arruazu	Bakaiku	Ergoiena	Etxarri Aranatz	Irañeta	Irurtzun	Iturmendi	Lakuntza	Olazti	Uhartte Arakil	Urdiain	Ziordia
Positibo metatuak	550	61	83	7	10	12	201	9	212	37	65	78	36	88	31
Positiboak ehunekoetan	%7.36	%6.34	%7.48	%6.60	%2.23	%3.24	%8.05	%5.32	%9.43	%9.00	%5.09	%5.23	%4.56	%13.31	%8.82

Txertatutako populazioa (80 urtetik gorakoak)



*Osasun eskualdeak

Denbora lerroa

- LEHEN ALARMA EGOERA**
- KONFINAMENDUA** Martxoak 16
- LAGUNTZA SAREAK HERRIETAN** Martxoak 17
- EZ FUNTSEZKOAK JARDUEREN ETENA** Martxoak 28
- DESEKALATZEAREN HASIERA** Maiatzak 4
- TABERNEN %50EKO IREKIERA** Maiatzak 11
- KULTUR EKITALDIAK BAIMENDUTA** Maiatzak 25
- KALEAN MASKARA DERRIGORREZKOA** Uztailak 17
- IKASTETXEEN IREKIERA** Irailak 1
- BIGARREN ALARMA EGOERA**
- TABERNEN ITXIERA** Urriak 22
- MUGEN ITXIERA** Urriak 22
- ETXERATZE AGINDUA** Urriak 25
- TERRAZEN IREKIERA** Abenduak 16
- TXERTAKETAREN HASIERA** Urtarrillak 18
- 80 URTETIK GORAKOEN TXERTAKETA** Martxoak 12



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Arnasa ere zor izanen dugu!

Krisi hotsak gero eta ozenagoak dira inguruan, ERTEak luzatzen ari dira, apika, EREak etorriko dira, langileak etxera... Garai zailak. Gauzak ez doaz ongi eta oinarritzko baldintza kaxkarrak dituztenek pairatuko dituzte, aurki, kalterik handienak. Zenbait langile edo sektorerengan eragina izugarria izan dela ikusi dugu, baina, badirudi, beste sektore batzuetara ere iristen ari direla pandemiaren ondorioak.

Ez dakit zuei ze irudituko zaizuen baina nire irudituz ekonomialarien hitza ez da gehiegi entzun gure inguruan, ez egunkarietan, ez telebistan, ez irratan herritarren bizimodua hobetzeko eta gizartearen gaitz ekonomikoak sendatzeko bideak proposatzen. Nik faltan botatzen ditut herritarrok ulertzeko moduko datuak, egoeraren berri izan dezagun eta irizpide bat osa dezagun. Neurriak etengabe hartzen ari dira, baina ni behintzat ez naiz gai horiek guztiak fundamentuz ulertzeko, gutxieneko kultura ekonomikoaren faltan, sobrare. Adibidez, banketxeek, orain, mailegu azkarrak erraz eman behar dituztela aditu dut, kontsumoa bulkatu nahi baitute eta jendeak dirua behar badu, ba eskatu eta emanen zaio. Zer prezioetan? Niri 2008ko krisia datorkit burura.

OINARRIZKO BALDINTZA KAXKARRAK DITUZTENEK PAIRATUKO DITUZTE KALTERIK HANDIENAK

Hilabete hauetan pandemiak sortu dituen kalte ekonomikoaren gaineko datuak han-hemenka modu zatikatuan jaso ditugu (esaterako, langabetuen kopuruak, zorraren datuak, Europatik etorriko diren funtsak...), ez, ordea, ikuspegi oso batekin. Gainera, hasiera

hasieratik eztabaida antzua plazaratu da: osasuna versus ekonomia. Zergatik? Zertarako? Badaude harreman horren adierazle ekonomikoaren inguruko txostenak gure erkidegoan? Nori dagokio txosten horiek egitea?

Zorraren mamua ere hortxe dugu, une honetan badirudi ez dela komeni gehiegitan aitatzea, aurrerago ikusiko omen dugu zer dakarkigun horrek, orain oraingoari aurre egin behar baitzaio. Pandemiaren gastuak nonbaitetik estali beharko ditugu, baina ordua iristen denean ezin izanen dugu erabaki nondik eta zerekin ordaindu, erabakia orain hartu baita, eta ez zaigu ez galdetu, ez eta jakinarazi ere. Esaterako, txertoen prezioei buruz ezer gutxi aurreratu dute, dena ilun-iluna da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

COVID19 + URRUNKETA=UMEZURTZ

NAGORE ARAMENDI AGIRREGABIRIA
ASIER KARRERA "BOLTIOREN" BIKOTEA

2019ko martxoan besarkatu zituen Boltiok bere haurrak azken aldiz. Bis hura eta gero, konfinamendua hasi zen.

Garai haietan bis eta bisiten orde, hiru astean behin hamar minutuko bideo deiak jarri zizkiguten. Momentu hartan gustura hartu genituen, elkarren aurpegiak ikus genitzakeelako.

Konfinamendua bukatu eta kalera irteten hasi ginenean, kristal bidezko bisitak baimendu zituzten. Boltiok eta biok aspaldi erabaki genuen haurrak ez genituela kristalera eramango; oso gogorra da elkar ezin ukitu eta elkar ezin besarkatzea eta aitarekin ezin jolastu ahal izatea haurrentzat mingarria da. Beraz, bisak noiz baimenduko zain geratu ginen.

Bisitak hasi zirenean bideo deiak kendu egin zituzten. Uztailean bisak egiteko baimenak ematen hasi ziren, baina intimoak bakarrik. Ni eta haurrak elkarrekin bizi garelarik, kutsatzeko arrisku bera izango genuke, beraz inongo zentzurik ez zeukan neurria zela azaldu genuen behin eta berriro. Irailera arte ez ziguten bis familiarrik egiten utzi. Hasieran bi pertsona bakarrik joan gintezkeela esan ziguten, haur bat eta ni. Gizarte laguntzailearekin eta zuzendari ordearekin egon ondoren, azkenean onartu zuten hirurak joatea. Handik bi egunera, ordea, COVID-

19aren lehenengo kasuak hasi ziren Dueñaseko espetxean eta berriro ere bisak bertan behera geratu ziren. Harrez gero ez dugu bisik egiteko aukerarik izan. Horren orde bideo deiak jarri dizkigute berriro... eta ia... ez dira berdinak.

Boltiok urte bete darama haurrak ikusi gabe. Haurrak aitarik gabe daude. Kartzela berez gogorra bada pandemiak are gogorrago

bihurtu du. Oinarritzko eskubideak kendu dizkiote, bai Boltiori eta baita hurrei ere, beren aitarekin egoteko eskubidea urratu dietelako. Haur baten bizitzan urte bat ikaragarri da eta asko nabaritzen dute aitaren falta. Frustrazioz eta dezepzioz betetako urtea izan da eta amaitzea nahi dugu. Patinetan joan nahi dute hurrekin aita besarkatu eta berarekin jolastera ia!"



OBJEKTIBOTIK



Partida 3 / 10

00:14

Euskal herriak

Zein herrialdeetan dago Olatzagutia?

Lapurdi

Nafarroa Beherea

Nafarroa

Non dagoen Olatzagutia badakizu, baina...

Euskal Herriko gainontzeakoak? Non dauden baldin badakizu, sartu zaitetz Egunean Behineko jokoa *Sakana* taldera 2B2160 giltzarekin eta irabazi Errigoraren saski zoragarri bat.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhora Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Babarrunei buruzko informazioa jasotzen. ARAKILGO UDALA

Ibarreko bioaniztasuna lantzen segitzen dute

Arakilen nekazaritzan erabilitako 70 landare barietate aurkitu zituzten joan den urtean. Haien erabilera zabaltzeko haziak banatuko dituzte, barietateen zaintza sarea sendotu eta, bide batez, hazien banku bat sortuko dute

ARAKIL

Arakilgo Udalak sustatu zuen joan den urtean *Bertako barietateak, bioaniztasun haziak* proiektua, Arrea elkarteak garatu duena Sakanako Garapen Agentziaren laguntzaz. Egitasmo horren bidez lortu nahi dute nekazaritza bioaniztasuna, nekazaritza ekosistemak eta landa garapen endogenorako beharrezko ezagutzak kontserbatzea, berreskuratzea eta balioa aitortzea. Izan ere, egitasmoaren bultzatzaileen iritziz, "nekazaritza barietate tradizionalak dira nekazaritza iraunkor eta ekologikorako ezinbesteko baliabide dibertsifikatuak, kalitatezko elikagaiak tokian ekoizti eta

kontsumitzeko eta hauek kanal laburren bitartez merkaturatzeko balio gehigarria baitute".

Nekazaritzaren erabilerari eta bertako barietateei buruzko informazioa jasotzeko asmoz, joan den urtean hainbat herritako 53 arakildarri 72 elkarrizketa egin zizkieten. Aurkitutako barietate tradizionalen kopuruarekin "harrituta" gelditu dira sustatzaileak, "bereziki fruta arbolak eta, zehazkiago, udareak. Hala ere, horietako asko desagertzeko arriskuan daude". Jakinarazi dutenez,

13 espeziatiko bertako 70 barietate identifikatu dituzte: udareak, aranak, sagarrondoak, pikondoak, hurritzak, intxaurrondoak, mahatsondoak, gaz-

tainondoak, mizpirak, irasagarrrak, pomoak, babarrunak eta porrua. Besteak beste: San Joan udarea, Campana udarea, Pelotxas aranak, muturluze sagarra, piku zuria, Ostabeltza gaztaina edo "Ojo de Perdiz" babarruna. Jasotako barietate guztien fitxa bana sortu da. Sustatzaileek jakinarazi dutenez, aurten dibulgazio gida argitaratu nahi dute.

Balioa aitortzea

Jasotako bioaniztasun ondare horri segida emateko Arakilgo 30 baratzearekin Biodibertsitate Zaindu eta Ugaltzeko Tokiko Sarea sortu zuten. Germoplasma banku publikoetan gordetzen ziren Sakanako hainbat

barietate haien artean banatu zituzten joan den urtean eta biderkatu egin zituzten beraien baratzeetan. Batetik, lau barazki barietate, horien artean Baliabide Fitogenetikoaren Zentroko babarrunak edo perrexila, eta, bestetik, Arakilgo garai bateko zazpi sagarrondo barietate. Hori egin ahal izateko Germoplasma Banku publikoekin hitzarmenak sinatu dituzte. Horrekin batera, prestakuntza eta sentsibilizazio lanak egin zituzten. Lehenengoari dagokionez, Egiarretan txertoak egiteko tailerra egin zen eta Lakuntzan haziak ugaltzeko beste bat.

Aurten proiektuaren bigarren fasean sartuko dira eta aurkitutako tokiko barietateak ugaltu eta banatuko dituzte. Horrela haien erabilera ibarrean zabaltzeko nahi dute. Eta, bide batez, sortu den zaintza sarea jende gehiago biltzea. Bestetik, aurten hazien banku bat sortuko dute. Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak bazterrean utzi gabe. Aurreikusitakoak dituzte, esaterako, gaztainondoaren zaintzari buruzko ikastaroa, fruta zaintza ekologikoari buruzko tailerra edo babarrun hazkuntzako ikastaroa.

Hasteko, larunbatean, fruta arbolen neguko zaintzei buruzko ikastaro eman du Carlos Gil frutrikultoreak. Lurraren garrantzia eta maneia, inausketa eta txertatzea, izurrite eta gaixotasunak nola kontrolatu, eta bestelakoez arituko da Izurdiagan bihar (aurretik izena eman beharra zegoen). Gainera, Arakilgo lau sagar barietateekin hainbat arbolatxo txertatuko dituzte eta Zaintza Sarean parte hartu nahi dutenen artean banatuko dira. Asteazkenean, berriz, sagarrondo ber txertaketaz ariko da Jose Migel Astiz Hiriberrin.

**INFORMAZIOA
BILTZEKO 53
ARAKILDARRI 72
ELKARRIZKETA EGIN
ZIZKIETEN**

Bideoetan euskara eta produktuak ikusgarri

Sakanako hizkerak zabaltzeko eta produktuen kontsumoa bultzatzeko asmoz sortu dituzte

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Sakanako Garapen Agentziak (SGA) elkarlanean *Sakana Sutondotik* kanpaina prestatu dute. Ibarreko euskalkiak eta Sakanako ekoizleek landutako produktuak ezagutarazi nahi dituzte. Helburu horrekin bederatz bideoa zabaltzeko astero; aurrenekoa atzo. Euskara Zerbitzutik eta agentziatik sakandarrei gonbidapena egin diete: bideoak zabaltzeko, errezetak egitera animatzeko, prestatutakoaren argazkiak partekatzea, sare sozialetan jarriko diren galderei erantzunez...

Tximonena jatetxeko Arantxa Mendoza sukaldariak lau errezeta prestatuko ditu eta aldamean beti produktuaren ekoizlea izanen du: axurkia txilindroi eran (Aitor artzaina lagun duela), mamia eztiarekin (Juanane artzainarekin), garaiko barazki lasagna (Bego eta Joxan ekoizleekin) eta behi txurraskoa tenperatura baxuan (ekoizlearekin batera). Bestetik, Zato, Felipe Karrera eta Altxaga gizonezko etxarriarrak bi bideoetan hiketan hitz egingen dute. Fernanda Jaka, Angelines Garziandia, Isabel Nazabal eta Miren Reparaz bi bideoetan herriko hizkeran entzuteko aukera izanen da. Denek gosariak, gaztak eta joandako garaiak ekarriko dituzte gogora. Azkenik, Aitziber eta Aitor Irigoien urdindarrak eta herriko Lopez de Goikoetxea dendako langileak txistorra kroketa nola prestatu azalduko dute.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Udaletxe ondoan hizketan.

Plan estrategikoaren jarraipen bilera eginen da

Larunbatean, 18:00etan, udaletxeko goiko gelan. Udalak bakaikuarrak parte hartzera gonbidatu ditu

BAKAIKU

Dagoeneko bi urte bete dira bakaikuarrak herrirako plan estrategikoa onartu eta hiru lehentasun zehaztu zituztela: auzolana, etxebizitza eta eskolak hartu zituen erakina. Lehenik auzolanaren ingurukoak zehaztu zituzten eta herri galdeketa bidez berretsi. Gaur egun beste bi gaiak dituzte esku artean bakaikuarrak. Hala ere, Bakaikuko Udaletik aitortu dutenez, "koronabirusa dela eta, azken urtean ez dugu plan estrategikoaren jarraipen taldea biltzeko aukerarik izan". Biltzea "kome-ni" dela uste dutenez, larunbaterako deitu dute bilera.

Bost gai izanen dira bileran. Batetik, auzolanaren ordenantza aurkeztuko dute, eta udalak onartzeko emanen dituen pausoak azalduko ditu. Horrekin batera, etxebizitza lantaldeak bere burua aurkeztuko du. Eskolen inguruan bakaikuarren iritzia jakiteko udalak bere proposamena jakinaraziko du. Horrekin batera, udalak jakinarazi du herriko denda urte akaberan itxiko dutela. Horren inguruko hausnarketa eta proposamen bilketa eginen da. Eta, despeditu aurretik, bakaikuarrak beraien herriri begirako ekarpenak egiteko aukera izanen dute.



Arbizuarrek frontoi zaharra zegoen tokian estalpea jarriko den edo ez erabakiko dute igandean.

Estalpeari buruzko galdeketa igandean

Halakorik behar den, eta beharrezkoa izanez gero plazako frontoi zaharrerako aurkeztutako bi eruedetako zein nahiago duten esateko aukera dute arbizuarrek. Udaletxeko areto nagusian eman dezakete botoa, 10:00etatik 20:00etara

ARBIZU

AHT gelditu! Elkarlanak 2009an eta Gure Esku Dagok 2017an herri galdeketa bidez arbizuarrei iritzia eskatu ondoren, Arbizuko Udalak bide bera erabiliko du herritarrek plazan estalpe finko bat jartzearen inguruan duten iritzia jasotzeko. Bi galdera erantzun beharko dituzte: frontoi zaharra tapatzeko estalpearen beharra ikusten duzu? Estalpea jartzekotan, zein aukera duzu nahiago?

Estalpearen aldekoek udalak zabaldutako bi proposamenen artean aukeratu beharko dute. A proposamena 285 metro karratuko estalpe lauki luze bat da eta B proposamena, berriz, 306 metro

karratuko estalpe lauki bat. Horien berri ematen zuen informazioa etxeetara zabaldu zuen udalak duela bi aste.

Aste honetan banatu duena bozketarako irizpideak eta jasotako galderen erantzunak dira. Horiekin batera, Arbizuko Udalak pertsona bakoitzeko bi boto paper banatu ditu etxeetan. Behar baino gutxiago jaso diren etxeetako biztanleek udaletxean hartzeko aukera izanen dute igandean bertan. Estalpeari buruzko herri galdeketa 16 urtetik gorako arbizuarrek iritzia emateko aukera dute, guztira 916k. Udalak arbizuarrek iritzia ematera eta estalpearen inguruan erabakitzera animatu ditu.

Leziza, manifestazioa etzi

Leziza ubeldearen ekologia egoerarekin kezkatuta dauden arbizuarrek sortu zuten Leziza Bizirik plataforma. Erreka bere onera bueltatzea du helburu erakundeak. Eta 16 urte baino gehiago dituzten 412 arbizuarrek bat egin dute haien eskaerekin. Hau da, "Agotzaina enpresak egiten dituen isurketak etetea" eskatu dute, baita "ibaiaren bizitasuna eta herritarren ongizatea berreskuratzeko enpresari dagozkion neurriak hartzeko exijitu" ere.

Jasotako sinadurak Nafarroako Gobernuaren Irurtzungo erregistroan aurkeztu zituzten hilaren 3an. Haiek Ingurumen

Departamentuari zuzendutakoak ziren. Baina Leziza Bizirik plataformako kideek sinadurak enpresari berari ere aurkeztu dizkiote.

Ubelde garbiaren aldeko mugimenduko kideek jakinarazi dutenez, "enpresak departamentutik eskatzen diren neurriak betetzeko asmoa erakutsi duen arren, asmoak asmo geldu ez daitezela, plataformak, behin eta berriz enpresari dagokiona eskatzen jarraituko du". Horregatik, eta igandean Ibaien Nazioarteko Eguna dela baliatuta, plataformak *Leziza ibaiaren alde, isurketen kontra* leloa duen manifestazioa deitu du. Arbizuko plazatik 13:00etan abiatuko dira manifestariak.

Nafarroako Gobernuak enpresari hainbat neurri betetzeko aldaketak eta hobekuntzak egitea eskatu dio. Neurri horiek betetzen diren argitzeko aldiaren behin jarraipen bilerak egiten dituzte Arbizuko Udalak eta enpresak. Eta hala egiten segituko dute lanak despeditu arte. Otsailaren 23koan udalak baieztatu ahal izan zuen hobekuntza lanak egiten hasiak direla. Enpresatik adierazi zieten bederatzita hilabeteko epea "justu xamar" izanen zela. Bestalde, enpresako arduradunek usainen izaera kimikoa aztertzeko prozesua hasi dute. Hori zehaztu ondoren, herriko hainbat estoldutako usaina aztertuko da izaera berdina duten zehazteko.

ESTALPEAREN INGURUAN IGANDEAN IRITZIA EMATEKO AUKERA DUTE 916 ARBIZUARREK

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Errazioak

Eguneko menua 11€
Menu berezia 15€

Jangela lehen solairuan
edo terrazetan

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia- Jatetxea

TETXEA-RESTAURANTE • KAIKO • BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restauranteikaixo.com

PORTUKO
OKINDEGIA
OKINDEGIA

okidenya

Gosari goxo-goxoak eguneroko
Etxarri Aranatzen

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Botiken kontsumoa murrizteko programa

Osasun langileendako autoprestakuntza programa batek %9an gutxitu du Nafarroako Lehen Arretan botiken kontsumoa. Ikerketa egiteko, besteak beste, Irurtzunen indarrean den programaren datuak hartu dituzte kontuan

SAKANA

Osasun langileendako autoprestakuntzako eta autoebaluazioko programa bati esker, Lehen Arretan antibiotikoen kontsumo orokorra %9 murriztu da 2018an eta 2019an. Eta joera horrekin segitu zuen joan den urtean. Hala ondorioztatzen du Osasunbideako Sendagaiaren Aholkularitza eta Informazio Zerbitzuak egindako azterlan batek. Programa 2018an ezarri zen, modu esperimentalean, 12 zentrotan, eta beste 34 zentrotara zabaldu da.

Ondorio hori ateratzeko, programan parte hartzen ari diren Lehen Mailako Arretako 12 talde hartu zituzten alde batetik, eta programatik kanpo dauden beste dozena bat. Lehen multzokoen artean Irurtzun zegoen. Bi multzoetako datuak alderatu dituzte eta lehen taldean jaitsiera handiagoa ikusi dute, bai botiken kontsumo globalean, bai arrisku handieneko antibiotikoen (fluorokinolona) eta makrolidoen kontsumoan (% 25). Biak infekzio bakterianoen tratamenduan erabiltzen dira. Beraz, ikertzaileek ondorioztatu dute programa horren ezarpenak erakutsi dela baliagarria dela antibiotikoen erabilera hobetzeko.

Botika antimikrobianoak optimizatzeko programa autopres-



Irurtzundarrak osasun etxeko estalpean. ARTXIBOA

takuntza plan bat da, eta honako helburuak ditu: profesionalak prestatzea, antimikrobianoen preskripzioen kalitatea ebaluatzea eta hobekuntza arloak hautematea. Hezkuntza elkarrizketetan edo aholkularitzetan oinarritzen da, eta metodologia pedagogikoa da.

Prestakuntzarako, materiala eta gidak eman ziren, lehen mailako arretako taldeko profesionalak beren ikastetxean antibiotikoen preskripzioa prestatzeko eta ebaluatzeko. Programak erakundeen laguntza du, eta

asistentzia eremu guztietako profesionalak parte hartzen dute. Nafarroako programa Europar Batasunak eta Osasun Ministerioak sustatutako antibiotikoen erabilera optimizatzeko programen barruan sartzen da, bai lehen mailako arretan, bai ospitaleetan.

Programa gauregun Irurtzunen dago ezarria; Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun eskualdeetan ez. Baina Osasunbideatik jakinarazi dutenez, "aurki ezartzea espero dugu. COVID-19 gaitzaren agerpenak programaren ezarpena eten zuten".



Etxarriarrek presoek etxeratzea aldarrikatzen. ARTXIBOA

Carrera Zaballako espetxera lekualdatuko dute

Mariñelarena Palentziara hurbildu zuten; Karasatorre oraindik ez dute Castellondik Kantabriara eraman

ETXARRI ARANATZ

Ostiralero moduan, Espainiako Espetxe Erakundeak presoek gerturatzeen edo Euskal Herri- ratzeen berri eman zuen. Iragarri zuten Asier Carrera Arenzana preso etxarriarra Palentziako Dueñas kartzelatik (310 km) Arabako Zaballara lekualdatuko dutela. Horrekin batera, etxarriarra bigarren graduan egonen dela gaineratu du Espainiako Espetxe Erakundeak, ondorioz, espetxe onurak eskuratzeko aukera luke.

Carrerari egozten zaio 2000. urtean Fernando Buesa Blanco PSE-EEko buruzagia zena eta haren bizkartzain Jorge Diaz Elorza hiltzea. 2000ko azaroaren 14tik dago kartzelatuta, 30 urteko zigorra betetzen. Zigorraren hiru laurdenak 2023an beteko ditu. Espetxe erakundearen arabera, espetxe legedia onartu du, indarkeria errefusatu du, era-

gindako mina aitortu du eta biktimei ordaina emateko beharra onartu du. Erantzukizun zibila ordaintzen ari da.

Presoen senideak biltzen dituen Etxerat elkarteak jakinarazi duenez, iragarritako 48 presoek lekualdatzeak ez dira egin. Etxerat-eko odezkariek ziurtatu dutenez, "astero egiten den lekualdatze erritmoa handitzeko unea da, lehenbailehen espetxe mapa berria errealtitate bihurtzeko. Lehenbailehen, preso guztiek egon behar dute Euskal Herrian".

Azkenik, Sarek deituta, larunbatean hitzordu bikoitza izanen da Etxarri Aranatz. Alde batetik, motxiladun umeen egoera azaleratzeko Porrotzek gidatutako ikuskizuna izanen da 11:30etik aurrera. 20:00etan, berriz, *Denak etxera* leloa duen manifestazioa abiatuko da plazatik.

Duela ni mende Korazonistak sortu zirela ospatzen

Kongregazioa sortu zela oroitzeko ekitaldiak egingen dituzte ikasturte honetan zehar

ALTSASU

Lyongo (Frantzia) haur behartsuen beharrei erantzuteko Aita Andres Coindrek (1787-1826) Bihotz Sakratuaren Anaiei Kongregazioa, Korazonistak, sortu zuen. 1821eko irailaren 30ean

izan zen hori, aurten bi mende. 200. urteurrena ospatzeko kongregazioak *Bihotzak bultzatzen gaitu* lelo aukeratu du. Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxeko akademia zuzendari Eva Urizek azaldu duenez, "pandemia dela

eta, ez dira prestatutako ekitaldi asko egin. Hala ere, egun hauetan, ikasleek 'Fundatzaileen Astea' ospatuko dute Altsasuko ikastetxean, hain garrantzitsua den data gogorarazteko".

Urizek azaldu duenez, gaur egun "komunitate korazonistak bost kontinenteetako 30 herrialdeetara baino gehiagotara ailegatu dira. Jesusen Bihotzaren Anaiei dedikazioak bat egin du irakasleekin eta ehunka profesionalekin, Aita Coindrearen ametsa aurrera eramateko". Al-



Altsasura 1926an iritsi ziren.

tsasuko ikastetxeko zuzendariak azaldu duenez, "korazonistok, Konfiantza Proiektuari jarraituz, gure hezkuntza lanaren helburu nagusia ikasleen garapen integrala da, arreta pertsonalizatua eskainiz eta kristau balioetan oinarrituta". Gaineratu duenez, "gure fundatzailearen ereduari jarraituz, ez ditugu behar handiena duten pertsonak ahazten, mundu osoan zehar gizarte lan garrantzitsua sustatuz, esaterako, Garesen Centro Puenten edo Gasteizen Coindre Etxean.



Sakanako hainbat eragilek bat egin zuten irakasleen eskaerekin eta prentsaurrekoa eman zuten otsailaren 5ean.

LHko irakasleak "pozik" hartutako erabakiekin

Mendi Erdiko eta Eskaladako heziketa zikloek bere horretan jarraituko dutelako eta heldu den ikasturtean institutuan Mikroinformatika Sistemen eta Sareen euskarazko ziklo berria ezarriko delako

SAKANA

Hezkuntza Departamenduak hartutako erabakiak "pozez" hartu dituzte Sakana Lanbide Heziketako (LH) institutuko irakasleek. Haien iritziz, "Mendi Ertaineko eta Eskaladako Teknikarien irakaskuntzari eusten bazaio, horretarako irizpide teknikoak daudelako da". Irakasleek Hezkuntza Departamentuari ere bi eskaera egin dizkiote. Batetik, "hartutako erabakiari jarraipena emateko konpromisoa har dezala". Eta, bestetik, "aurrerantzean parte hartzeko mekanismoak antola daitezela, ikastetxeko prestakuntza eskaintzaren definizioan irakasleen eta lurralde eragileen iritzia ezagutzeko".

Horrekin batera, irakasleek esker ona azaldu diete "defendatu ditugun irizpide teknikoak hasieratik babestu" dituztenei: ELA, LAB, Steilas, CCOO eta Afapna sindikatuak, Sakanako Garapen Agentzia, Sakanako Mankomunitatea, Altsasuko al-

katea, Bidelagun (Sakanako turismo enpresen elkarte) eta ibarreko eskola publikoak. Geroa Bairi, EH Bilduri eta Izquierda-Ezkerrari ere eskerrak eman dizkiete haiek eskatuta Carlos Gimeno Gurpegi kontseilaria eta Tomas Rodriguez Garraza Lanbide Heziketako zuzendariak presazko agerraldia egin baitzuten Nafarroako Parlamentuan. Irakasleek azpimarratu dutenez, "guztion artean egindako lana izan da ziklo horiek ibarrean mantentzea eraman gaituena".

Iragarpena

Aipatutakoak institutuak izanen dituen euskarazko bigarren ikasketak izanen dira. 2018-2019 ikasturtetik, Mendekotasun egoeran

"GUZTION ARTEAN EGINDAKO LANA IZAN DA ZIKLO HORIEK IBARREAN MANTENDU DITUENA"

dauden pertsonen laguntzea zikloa ikasteko aukera zegoen. "Euskaraz izanen da, eskualdean dagoen eskaerari erantzunez". Hala esan zuen Maria Chivite Navascues lehendakariak.

Lehendakariak esan duenez, "ez dut ulertzen LHren inguruan sortu den polemika. Hezkuntza kontseilariak eta LHko zuzendari nagusiak azaldu zuten hitz egiteko prozesu ireki batean geundela, eta ez zegoela inolako erabakirik hartuta". Chivitek gaineratu duenez, "industria eskualdea da hau, eta eskatzen duen prestakuntza beharretara egokitutako ikasketak dira ezarriko direnak, enplegarritasun ikuspegi hobearrekin". Esan zuenez, ikastetxean teknologia aplikatuko gela berria jarriko da "ikastetxeko prestakuntza praktikoagoa eta enpresaren beharretara egokituagoa egingo duten baliabide teknologikoak sartzeko". Bestetik, Altsasuko Geroa Bai "pozik" agertu da zikloak gelditzeagatik eta elkarlanagatik.

Osasun zerbitzu duinen aldeko sinadurak bilduko dituzte

Falta diren medikuak ordezkatzeko eta behar bezalako arreta eskatzeko, astelehenean hasiko dute bilketa

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Aspaldikoa da Altsasuko oinarritzko osasun eskualdearen osasun arretarekiko kezka Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian, mediku faltagatik larriagotu dena. Egun sei medikutik lau daude, Olatzagutikoa eta Altsasuko bat falta da. Gabezia ziklikoak direla ikusita, horiei konponbidea emateko sinadura bilketa egitea erabaki dute Nafarroako Osasun Plataformaren kontzentrazioetan parte hartzen duten pertsonen.

Osasunbideari eta osasun etxeari zuzendutako sinadura bilketa horretan hiru herrietako biztanleek haiekiko "errespetua" eskatuko dute. Sinatzaileak kekatuko dira Altsasuko osasun etxean "aspalditik egiturazko gabeziak daudelako, COVID-19ak eragindako pandemiarekin larriagotu egin dena". Aldi berean, eskatuko dute "osasun etxean edo kon-

tsultategian arreta egokia jasotzea, bai administrazioan, harrean edo medikuengatik". Gainera, alde aurreko kontsulten alde agertuko dira, "nahiz eta kontsulta telefono bidez hartua izateko aukera izan". Langile kopurua handitzea eta bajaran dauden langileen postuak 24 ordutan ordezkatuak izatea. Horrekin batera, medikuek kartilla kopuru txikiagoa izatea eskatu dute, horrela, gaixo bakoitzarekin gutxienez 10 minutu egoteko aukera izan dezaten. Azkenik, aspaldi bildu ez den Osasun Kontseilua berriro martxan jartzea exijituko dute. Sinadura bilketa astelehenean hasiko da Zumalakarregi plazan, pentsio duinen alde eguerdian egingen den kontzentrazioan. Asteazkeneko azokan eta osasun etxe parean egingen diren kontzentrazioetan ere jasoko dituzte.

IKASTOLAK HERRIARI HITZALDI ZIKLOA

ANDRA MARI

EDSKARAREN MOTIBAZIO TAILERRA

MARTXOAK 16, 18:00-20:00, ETXARRIKO KULTUR ETXEAN

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eskutik

TRANSFORMATZEN dokumentala eta Naizen elkartearen kideen irazpenak (Elebiter)

MARTXOAK 18, 18:00-20:00, LAKUNTZAKO KULTUR ETXEAN

Naizen elkartearen eskutik

JAKAN PENA ETA PRATO ONAK

Dokumentalaren dokumentala eta solasaldia (Euskaraz)

MARTXOAK 24, 17:00-18:30, ARBIZUKO UDALETXEAN

Ikastolen Elkartearen eskutik

Edukiera mugatua. Izen-ematea:
izenematea@andramariikastola.eus

ZURE PUB

HEN



Informazio gehi
948 564 275 |
publi@guaxe.e
guaxe.eus/pub

LIZITATEA

MEN

Diago:
661 523 245
us
lizitatea/





Arbizun martxoak 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, izandako elkarretaratzea. UTZITAKOIA

Feministen aldarriak ozen

Martxoak 8 dela eta, mugimendu feministak deituta, jendea kalera atera zen Iruztunen, Irañetan, Uharte Arakilen, Arruazun, Lakuntzan, Lizarragabengoan, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Altsasun eta Olatzagutian

C.A. OSASUNA
VS
REAL VALLADOLID

MARTXOAK 13, LARUNBATA
18:30-20:30
(IRRATIKO KONEXIOA 18:15EAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerriairratia

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

SAKANA

Mugimendu feministak aurten go Emakumeen Egunerako aukeratu zuen leloa *Dena aldatu, sistema arrakalatu* izan zen. Eta hori aldarrikatzeko makina ba kontzentrazio egin ziren. Altsasun egindako eskualdeko manifestazioan mugimendu feministak ziurtatu zuenez, "lehertu dena ez da osasun krisia bakarrik. Pandemiak "hainbat dimentsioetako krisiak azaleratu dituela". Gaineratu zuten, "sistema kapitalista, heteropatriarkala eta arrazista arrakalatzeko kolektiboki borrokan. Bizitzak sostengatzeko ardurak kolektibizatzeke, eta botere harremanak errotik aldatzeko" jarraituko dute.

M 8aren "iraultza izaera"

Lakuntzako Gazte Asanbladak (LAGA) deituta, *Emakume langileok, antolakuntza eta borroka*

leloa zuen manifestazioa egin zen. LAGAk kideen iritziz, "Emakume Langileon Nazioarteko Eguna emakume langileon askapena ardatz izanda borrokatu dutenak gogoratzeko eguna da eta, aldi berean, oraina eta etorkizuna eraikitzeke antolaketaren beharrezkotasuna azpimarratzea dagokigu".

Gazte erakundeko ordezkariak gaztigatu zuten, "ezinbestekoa da norabidea argi izatea, sumiso nahi gaituen gizarte zapaltzaile baten aurrean, egunegun eta esparruz esparru, formatuz eta aurrera pausu txiki baina garrantzitsuak emanez". LAGAk kideek dei egin zuten "sistema kapitalistaren logika osotasun modura" ulertzeraz. Gaineratu zuten, "COVID-19 birusaren etorrerak azkartutako krisi orokorra".

LAGAk kideek adierazi zuten, "genero problematikaren auzian nagusitutako itxurakeria baztertu eta salatu behar dugu; guretzeko ez baita nahikoa burgesiak eta sozialdemokraziak urtean bitan haren paretak moztu margoitzea, logika kapitalistaren baitan erreforma huts eta gutxi batzuen eskura egongo direnak defendatzea". Eta "zapalkuntza guztiekin bukatuko duen eta pertsona ororen ongizatea bermatuko duen gizarte" aldarrikatu zuten.

Gaineratu zuten, "interesa bakar gisa kapitalismoaren biziraupena eta kapitalaren etengabeko metaketa duen burgesiak,

emakume langileon miseria erabiltzen du haren helburuak betetzeko tresna gisa". Horren aurrean, "klase batasunaren garrantzia nabarmendu" zuten, gaineratuz, "antolakuntza eta borroka bakarrik lor daitezke osotasun kapitalistak barnebiltzen dituen zapalkuntza ororen gaindipena, gaurdanik sozialismoaren eraikuntza ipar izanda". Emakumeen Egunean "proletarioko osotasun berri baten eraikuntza defendatu" zuten, "zapalkuntza ororekin amaituko duen eta pertsona ororen ongizatea bermatuko duen gizarte".

Bizitzak erdigunean jarri

Hainbat etxarriar elkartu ziren plazan udalak deitutako bilkuran. Etxarri Aranazko udal ordezkariak nabarmendu zuten, pandemiak "egiturazko genero desberdintasunen gorakada" ekarri du. Gaineratu zuten, "irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara bueltatzea, emakumezko gehienek lehenago ere bizi zituzten diskriminazioa eta eskubideen urraketa. Orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiondako bizitza duina bermatzea eta zaintza lehentasuntzat joko duen gizarte, ekologia eta ekonomia antolaketa baterantzko oinarri sendoak ezartzeko".

Bide hori egiteko bi gako eman dituzte: "erakundeen arteko koordinazioa eta herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eragin-kortasunez parte hartzea, batez ere, emakume talde anitzek eta mugimendu feministak". Ordezkari publikoek dute "erantzukizun publiko handiari behar bezala aurre egin" behar diotela esan dute, eta egiteko hori "premisia feministetatik egin" behar dutela; "artikulazioa eta parte hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz".

Udal ordezkarien iritziz, gaur egun emakumezkoek dute zaintzaren ardura, lan baldintza okerrenak, haiek dira pobretu direnak indarkeria matxista jasaten dutenak... Etxarri Aranazko Udalak adierazi duenez, "bizitza prekarizatu eta ahuldu egin da pandemiarekin. Feminismotik erantzuna argia da, eremu guztietatik bizitzari eusteko apustu erradikala egiteko unea da".



Imaz, Urrutikoetxea, Jaka eta Martija, material aukeraketan. LUIS ANGEL GOMEZ

Martijaren eta Jakaren oldarraldia: 4 final jarraian

PILOTA Finalerdietako play-offetan egoteko geratzen diren lau partidak lau final handi gisa planteatu dituzte

Tafallako partidak "tranpa" zuela esan zuen aurreko astean Joseba Ezkurdiak. Binakako hasierako ligaxkako sailkapena ixten zuten Erik Jaka eta Julen Martija ez zituela horren gaizki ikusten. Eta bete betean asmatu zuen Arbizuko aurrelariak. Tafallan, Martijak hobera egin zuen nabarmen, Ladis Galarza erabat menderatuz. Ezkurdia presatu samar aritu zen, joko azkar bukatzeko presekin, eta horrek kalte egin zion. 22 eta 12 irabazita, Jakak eta Martijak euren bigarren puntua lortu zuten, Binakako finalerdietako postuetan sailkatu ahal izateko aukera eta airea eman diena.

Martija: "Binakako partidarik garrantzitsuena izango da"

Astelehenean, Binakako ligaxkako 11. jardunaldia ixten duen partidari Jakak eta Martijak Urrutikoetxea eta Imaz izanen dituzte aurkari Etxebarrin (22:30, ETB). Jakak eta Martijak geratzen diren lau jardunaldiak 4 final handi bezala planteatu dituzte, jarraian irabazi beharreko lau final. Tafallan ongi ikusi zuten bere burua, sentsazioak onak dira eta euren "nortasunari eusten jarraitu" nahi dutela nabarmendu zuten asteazkeneko material aukeraketan. "Aukerak izaten jarraitu nahi badugu, irabazi beharrean gaude. Akaso astelehenekoa izango da Binakako gure partidarik garrantzitsuena" aitortu zuen Martijak. Bi bikoak finalerdietarako sailkatzeko arerio zuzenak dira –

Urrutikoetxeak eta Imazek lau puntu dituzte eta Jakak eta Martijak 2- eta jokoan dagoen puntu urrezkoa da.

Ezkurdia sentsazioak berreskuratzera

Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Tafallan galdutako sentsazio onak berreskuratu nahi dituzte. Lau puntu dituzte eta larunbatean bosgarrena lortu nahi dute, 6 puntu dituzten Peña II.aren eta Albisuren kontra. Partida zaila dute aurretik. Albisu txapelketa oso ona egiten ari da, atzelari sendoa da eta Ladisek lan handia izanen du. Baita Ezkurdiak ere. Ea Labriten jokatzek mesede egiten dien.

Zabaleta bide onera

Igandean bi oilarren arteko partida jokatu zen pilotaren katedralean eta Elezkanon II.a eta Zabaletak Altunaren eta Mariezkurrenaren aurrean amore eman behar izan zuten (19 eta 22). Tarteke sufritzea tokatu zitzaion Etxarrengo atzelariari. Sailkapenean lider jarraitzen dute Elezkanok eta Zabaletak (8 puntu), baina Altuna eta Mariezkurrena bigarrenak dira, puntu berberekin. Gaur, ostirala, liderrak Artola eta Aranguren izanen dituzte aurkari Mungian (22:00, ETB1). Garaipenaren bidera itzuli nahi dute Elezkanok eta Zabaletak, lidergoari eusteko. Baina Artolak eta Aranguren euren 4. puntua litzatekeena lortu nahiko dute eta lehia gogorra espero da.

Aralar Mendik igoera faseari ekingo dio bihar

ARETO FUTBOLA Uharte Arakilgo taldeak 2. B mailara igotzeko igoera fasea jokatu du Ribera de Navarra, Anaitasuna, Ablitas eta San Juan taldeekin. Guztira 10 jardunaldi jokatu dira eta larunbatean San Juan izango du aurkari

Aurreko asteburuan 3. mailako areto futboleko lehen fasea despeditu zen, eta talde onenek 2. fasera edo 2. B mailako igoerara fasera sailkatzea lortu dute. Eta tartean dago Uharte Arakilgo Aralar Mendi taldea.

Aralar Mendi 3. mailako 7B azpimultzoan aritu da lehen fasean. Azken jardunaldian launa berdindu zuen Zubiriko Ibararte taldearekin, eta 7B azpimultzoan 3. postuan sailkatu da. 2. fasean 2.B mailara igotzeko fasean ariko da, 7C azpimultzoan, beste lau taldeekin batera: Ribera de Navarra, Anaitasuna, Ablitas eta San Juan. Guztira 10 jardunaldi jokatu dituzte eta bihar, larunbata San Juan taldearen kontra ariko da Aralar Mendi, San Juan pabilioian, 18:00etan.

Denboraldi bikaina egin du Aralar Mendik. Horren isla, asteartean Mikel Hermoso de Mendoza taldekideak futbol federazioko Radio Federacion irratsaioan parte hartu zuen.



Aralar Mendikoa federazioko irratsaioan.

Xota laugarren

Irurtzungo Xota taldea, aldiz, 3. mailako areto futboleko 7A azpimultzoan lehiatu da bukatu berri den lehen fasean. Azkeneko jardunaldian Universidad de Navarraren kontra jokatu zuen

eta 4 eta 2 gailendu ziren OPUS-eko ikasleak. Horrela, 7A azpimultzoko sailkapenean Ribera de Navarra izan da liderra, eta Xota laugarren sailkatu da.

Asteburuan 2. fasea hasiko da eta Xotak 7E azpimultzoan jokatu du Itarua Huarte, Garbayo Chivite Cintruenigo eta Kirol Sport taldeekin batera. 6 jardunaldi jokatu dituzte guztira eta datorren asteburuan hasiko dira lanean. 1. jardunaldian Xotak Itarua Huarte hartuko du Atakondan.

Emakumezkoen Xota taldeak

Emakumezkoen senior mailan, Xotako bi taldeendako ahazteko moduko jardunaldia izan zen asteburukoa. Xota talde nagusiak 1 eta 0 galdu zuen Antsoainen, eta Xota B taldeak jipoi gogorra jaso zuen: 0 eta 13 irabazi zion Txantreak. Bihar Xotak Orvina liderra hartuko du Atakondan, 12:30ean, eta Xota Bk Mutilbera izango du aurkari etzi 10:00etan.

Kapitainaren agur eskertua

SASKIBALOA Naiara Diez Lointek Gernikako kapitain altsasuarrak denboraldi bukaeran saskibaloia utziko duela iragarri du. 34 urterekin eta gorenean dagoela utziko du orain arte bere bizia izan dena. Esker oneko hitzak izan ditu. "Oso zoriontsu izan naiz eta pozik noa. Nire kirol ibilbidean lortutako garaikurrak garrantzitsuena eskuratu dut: bizi osorako lagunak".





Oscar Guerrero Burunda klubeko zuzendaria da eta aurkezpenean esan zuen Kataluniako Voltan Chris Froome zuzenduko duela.

Froome zuzentzeko "sekulako ilusioa" du

TXIRRINDULARITZA Israel Start-Up Nation taldeko Oscar Guerrero kirol zuzendariak martxoaren 22an hasiko den Kataluniako Voltan zuzenduko du Chris Froome lehenengoz. Halako lider bat gidatzeak taldeari ardura eta presio gehiago ekarriko diola jakitun da

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Martxoaren 22an hasiko da Kataluniako Volta, Calellan, eta 6 egun geroago Bartzelonan despedituko da. Bertan ariko diren txirrindulariek 1.000 kilometro baino gehiago osatu beharko dituzte orotariko profilak dituzten 7 etapetan, eta txirrindularitzaren elitea bilduko da bertan. Eta hain zuzen ere lasterketa horretan zuten du aurtengo denboraldia Israel Start-Up Nation taldeko Oscar Guerrero kirol zuzendariak.

Aurretik bere taldearekin pare bat kontzentrazio egin ditu zuzendari altsasuarrak, baina 2021 denboraldian gidatuko duen lehen lasterketa Volta izanen da. Eta bere esanetara ez du nolana hiko taldea izanen; guztien buru, aurtengo fitzaketa izarra egonen da: Chris Froome. Txirrindulari britainiarrak (1985, Nairobi) sekulako palmaresa du: 60 garai-pen baino gehiago, tartean Frantziako 4 Tour (2013, 2015, 2016 eta 2017), Espainiako 2 Vuelta (2011,

2017), Giro bat (2018), Dauphiné-ko 3 Criterium (2013, 2015 eta 2016) eta Olinpiar Jokoetako bi domina ditu (2012, 2016).

Hasierako ilusio berbera

Denboraldia hasteko irrikaz dago aldi berean Burunda Txirrindularitza Taldeko presidentea den Oscar Guerrero. Hala sumatzen zitzaien igandean Burundak egindako aurkezpenean. "Lehen nuen pasio eta ilusio berbera dut, Burundako kadeteen taldea gidatzen nuen irrika berbera. Baina aitortu beharra dago hau guztia askoz ere handiagoa bilakatu dela" azaldu zuen. Izan ere, Israel Start-Up Nation taldeak behetik gora egin du nabarmen. Tartean, joan den urteko Espainiako Vueltan garaipen bat lortu zuen Oscar Guerrerok zuzentzen duen taldeak -Daniel Martin irlandarrak irabazi zuen iazko Vueltako 3. etapa, Guerreroren esanetara- eta hori "zuzendari gisa izan dudana pozetako bat" izan zela gaineratu zuen.

Gora egin du Israel Start-Up Nation taldeak eta goian jarraitu edo gorago egon nahi du. Chris Froome fitxatu izana da horren adibide. Froome helburu nagusia aurtengo Tourra da, eta horretara egokitu du aurtengo egutegia: UAE Tourra, Kataluniako Volta eta Dauphiné Criteriuma.

Froomekin "asko" ikasiko du

Froome Oscar Guerreroren esanetara ariko da Voltan. "Arraro egingo zait; akaso sinadura eskatuko diot Katalunian ikusten dudanean" egiten du txantxa Guerrerok. Baina oso serio jartzen da Froome gidatzeak "sekulako ilusioa" ematen diola esateko. "Izugarritzko ilusioa dut, eta ba-

"FROOME GIDATZEA EZ DA BESTE EDOZEIN TXIRRINDULARI ZUZENTZEA" OSCAR GUERRERO

dakit horrek, aldi berean, ardurara eta presio gehiago ekarriko diola taldeari. Froome gidatzea ez da beste edozein txirrindulari zuzentzea. Baina argi dut berak asko erakutsi behar digula eta berarekin asko ikasiko dugula. Ikusiko dugu bere hankak noraino eramaten duten, ez dakigu irabaztera izango den, edo gertu egotera edo ez, baina berak duen guztia jarriko duela oso argi dut" nabarmendu zuen Altsasuko kirol zuzendariak Iortia aurrezpenean.

Gazteen oldarraldia

UCI Pro Tour tropelean geroz eta txirrindulari gazteagoak dira protagonista. Junior mailatik zuzenean profesioaletara doaz batzuk. Hor ditugu Remco Evenepoel, Wout van Aert, Tadej Pogacar, Primoz Roglic eta Mathieu van der Poel, esaterako. "Mathieu van der Poelena aparteko kasua da. Inork ez dugu bere fenomenoa ulertzea lortu. Inork ez dizkio mugak jartzen. Apartekoa da. Baina estatuko txirrindulariez ari bagara, honek beldur pixka bat ematen du. Azkeneko joerak ikusita, badirudi txirrindulariek 19 edo 20 urterekin profesioaletara salto egin behar dutela eta hori ez da horrela; pazientzia izan behar da. Espainiako txirrindularitza askoz ere lasaia da. Afizionatuen mailan 130 kilometroko lasterketak egitetik profesioaletara dagoen salto handia da; berde samar iristen dira txirrindulariak. Aurreko egunean Josu Etxeberriak aipatzen zidan al daketa ikaragarria dela. Eta hori, normala da. Eta Josu 25-26 urteetara iristen denean txirrindulari ona izanen da" azaldu zuen Oscar Guerrerok.

Pazientzia eskatu die

Aldiz, Europako Iparraldean eta Europako Ekialdean 19 urterekin ia profesionalak dira txirrindulariak eta 20 eta 21 urterekin emaitzak izateko gai dira. "Baina 28-30 urterekin ezin duzu askoz ere gehiago espero. Horregatik hemengo txirrindulariei esaten diet lasai egoteko, gutxika joateko. Ez da erraza 20 edo 21 urterekin izugarri nabarmentzen den bertako txirrindularirik topatzea, baina beranduago, 26-28 urte dituztela, beti agertzen dira. Hemen geldoago doaz gauzak, baina beti iristen da momentua" nabarmendu zuen Guerrerok.



Arrietak irabazi zuen azken trofeoa.

Lehen proba ate joka: etzi 35. Udaberri Trofeoa

TXIRRINDULARITZA Burundak Altsasun antolatutako juniorren proba igandean 10:30ean hasiko da

Duela urte bat, 2020ko martxoaren 15ean, Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako juniorren 35. Udaberri Trofeoa lasterketa zen jokatzekoa. Baina egun horretan bertan Espainiako Gobernuak Alarma Egoera ezarri zuen eta konfinamendua hasi zen. Guztia bertan behera geratu zen, baita 35. Udaberri Trofeoa ere. Eta hain zuzen ere, urte bat geroago, igande honetan, martxoak 14, jokatu da 35. Udaberri Trofeoa.

Pandemian jarraitzen dugunez, osasun neurri zorrotzak beteko dituzte Burunda Klubekoek. "Ere bat itxiko dugu eta bertan txirrindulariak eta taldeak egongo dira, burbuilan. Eta, jakina, Nafarroako Txirrindularitza Federaziotik eskatutako osasun neurri guztiak beteko ditugu" azaldu du Burundako presidentea Oscar Guerrerok.

Juniorren 35. Udaberri Trofeoa igandean goizeko 10:30ean abiatuko da Iortia plazatik. Juniorrek Ziordia eta Etxarri Aranatz artean prestatutako 80 kilometro gorabeheratsu izanen dituzte aurretik, Altamirako bi igera tartean. Helmuga Altsasuko udaletxe parean izanen da, 12:30ak inguruan, beti ere txirrindulariek proba osatzen duten abiaduraren arabera.

59 txirrindulari Burundan, aspaldiko partez

TXIRRINDULARITZA Burunda Txirrindularitza Taldeak 2021eko aurkezpena egin zuen lortian. Aurten 17 txirrindulari berri ditu klubak, horietatik 10 emakume, eta "oso pozik" daude. "Harro egoteko modukoa" dela nabarmendu du Guerrero presidenteak

Igandean 2021 denboraldiko aurkezpena egin zuen Burunda Txirrindularitza Taldeak Iortia Kultur Gunean. Juan Mari Guajardok gidatu zuen ekitaldia. "Aurten 44. denboraldiari ekingo dio Burunda Taldeak, eta hori ez da edonolako" nabarmendu zuen speaker altsasuarrak. "Burundak 44 denboraldi, azkar esaten da. Aurrekoek egindako lan onaren oinordekotza jaso eta egingo juntakoek bost urte inguru daramatzagu lanean. Gogotsu gaude, baina nabarmen-tzekoa da kluba guztiok garel: junta, txirrindulariak eta familiak. 12 familia berri ditugu aurten eta oso pozik gaude. Euren



Burundako kategoría ezberdinetako taldeen aurkezpena egin zen igandean.

lana ezinbestekoa da kluba aurtera ateratzeko, neska-mutilek entrenatzeko eta lasterketak antolatzeke. Argi diot: gurasoen inplikaziorik gabe ezingo genuke ezer egin" nabarmendu zuen Gorka Mintegi idazkariak. Klubaren helburua betikoa da: neska-mutikoak txirrindularitzan trebatzea eta ongi pasa dezatela. Hori baita garrantzitsua.

Mintegik babesleen laguntza eskertu zuen. "Urte asko daramatzate gurekin. Azken urte hau euren ere oso gogorra izan gozen, baina gu babesten jarraitzen dute, eta txirrindularitza sustatzeko egiten duten ahalegina azpimarratzekoa da". Bestalde, Nafarroako Txirrindularitza Federazioak pandemian txirrindularitza sustatzeko egindako ahalegina nabarmendu zuen.

Iaz euren bidea bukatu zuten juniorrekin gogoratu ziren. Txirrindularitza utzi duten Goyo Chamorro, Julen Guerrero eta Willy Torres izan zituzten gogoan, eta afizionatuen mailara salto egin duten Iker Mintegi (Laboral Kutxa) eta Unai Aznar (Lizarte) oholtza gainera gonbidatu zituzten. "Txirrindulari izan nahi

dugun edo ahal dugun erabakitzeko kategoría berriari gaude orain. Orain hasten da benetakoa" adierazi zuten biek.

Aurten 9 lasterketa antolatuko ditu Burundak: igandean Altsasuko jubenilen 35. Udaberri saria, apirilaren 17ko Altsasuko kadeteen 33. Burunda Trofeoa, uztailearen 2ko Urdiaingo kadeteen proba eta uztailearen 16ko Iturmendiko kadeteen lasterketa. Horretaz gain, Iturmendin, Urdiainen, Altsasun, Olaztin eta Ziordian festetan antolatzen ohi diren eskolen mailako probak.

Oscar Guerrerok jarraitzen du Burundako presidente. Iñaki Lasa presidenteordea da, Gorka Mintegi idazkaria, Ismael Perez diruzaina eta Joxean Begiristain eta Pablo Urtasun bokalak.

"Aurten 59 txirrindulari. Ustedut aspalditik ez ditugula horrenbeste izan. Horietatik 17 berriak dira, tartean 10 emakume, nabarmen-tzekoa. 12 familia berri. Harro egoteko modukoa da" azpimarratu zuen Guerrerok. "Sekulako poztasuna ematen du" gaineratu zuen egun Burundako gurasoa den Iker Flores txirrindulari profesional ohiak.

2021



Burunda txirrindulari taldea

Eskolak (43): Promesak (4): Anai Mazkarian, Alain Anguiano, Saioa Mejja eta Simone Flores. Hasiberriak (11): Ohian Queiros, Joritz Claver, Javier Ramirez de Alda, Unai Celaya, Eki Arbizu, Iker Aguirre, Daniel Curiel, Asier Galarza, Aderi Marañon, Ara Marquez eta Unax Mazkarian. Kimuak (20): Euker Apaolaza, Aitor Piedra, Markel Urteaga, Enara Perez, Ezkai Lakunza, Egoi Urtasun, Ekaitz Zufiaurre, Eider Mazkarian, Lucia Andueza, Ane Vegas, Oier Olaberria, Unai Gomez, Asier Flores, Ibai Galarza, Gabriel Gonzalez, Alex Gonzalez, Aitzol Hernaz, Markel Lizarraga, Jon Hernandez eta Xabier Curiel. **Haurrak (8):** June Franco, Siets Goikoetxea, Ane Beltran de Heredia, Oier Carabias, Hegoi Garcia, Ekain Imaz, Ekaitz Perez eta June Etxeberria. **Kadeteak (9):** Andoni Yerai Bedoya, Pablo Senosiain, Iker Gomez, Iker Begiristain, Ion Aierbe, Iker Agudelo, Joseba Ortigosa, Asier Etxeberria eta Mikel Regil. *Entrenatzaileak: Ion Irigoien eta Tomas Martinez.* **Juniorrak (7):** Xabier Borrega, Unax Trejejo, Ander Villalovos, Mikel Uncilla, Sergio Lopez, Hugo Aznar eta Ohian Etxeberria. *Entrenatzaileak: Eneko Vilar eta Alex Uncilla.*



C.C. LA MOREA
C.C. ITAROA



Garaje Urbasa, S.A.



Laguntzaileak: Txartel, Piensos Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritzita, Mapfre, Markor S.L., Carpintería Larrainbide eta Yeregi ileapaindegia.



2019ko Nafarroako Kirol Jokoen finalak Altsasun jokatu ziren. Iñigo Aritzako taldeetako bat, Jon Lagosekin eta Arzarekin batera.

Pena handiz, baina aurten herri kirolak gabe

HERRI KIROLAK Otsailaren 28an hasi ziren 34. Nafarroako Kirol Jokoak. Txapelketa horretan urte luzez aritu izan dira Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako taldeak, baina aurten ezinezkoa zaie aritzea, ikastetxeei eskatutako protokoloak direla eta

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Otsailaren 28an 34. Nafarroako Kirol Jokoak hasi ziren. Soilik 5 klubetatik sortutako taldeak ari dira parte hartzen: Antsoain, Araxes, Berriozar, Txantrea eta Igantzi. Sakanako taldeak, Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastole-takoak, ezin dira aritu.

"Pena handia dugu. Lana izaten da Nafarroako Herri Kirol Jokoak prestatzea, baina gustu handiz egiten duguna. Ikasleak nola gozatzaren duten, beraien artean nola harremantzen diren, eta zenbat gauza lantzen ditugun ikusita, aurten aukera hori ez izateak pena handia ematen digu" azaldu du Andra Mari ikastole-tako Mikel Senar irakasleak. Iritzi berekoa da Iñigo Aritza ikastole-tako irakasle Jon Lagos. "Pena izugarria ematen digu, urte pila daramatzagulako Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte hartzen. Oso gustura egiten dugun jarduera da, toki ezberdinak ezagutzea eta ongi pasatzea ahalbideratzen diguna. Ikasleek beste herriko kirolariek harre-

mana egiten dute, eta oso jardue-ra polita da. Pena da" dio.

Andra Mari 20 urte inguru izanen ditu Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte hartzen, eta Iñigo Aritzak ere urte kopuru luzea.

Oztopoak: burbuilak eta eskolaz kanpoko jardueren debekua

Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte hartzeko erabakia urria

aldera hartu behar zen. Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastetxeak dira, eta Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte ez hartzearen arrazoi nagusia Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako protokoloak dira. "Batetik, ikastole-tako gelen artean burbuilak sortu behar ditugu. Hau da, gela ezberdinetako ikasleak ezin dira kontaktuan egon, ez atsedenean ez bestelako jardue-

ratan. Eta, bestalde, Hezkuntza Departamentutik esan zitzaigun hezkuntzaz kanpoko jarduera guztiak bertan behera utzi behar genituela. Herri kirol entrenamenduak eskolaz kanpoko ordutegian egiten ditugu, eta, horretaz gain, gela ezberdinetako neska-mutilak nahasten dira herri kirol taldeetan. Beraz, aurten ezinezkoa da" azaldu du Mikel Senarrek.

Arrazoi berbera aipatu du Jon Lagosek. "Protokoloa ikusita, zailtasun nagusia burbuilena zen. Herri kirolak eginez gero burbuila horiek hautsiko liriteke. Ikasturte hasieran egoera aztertzen aritu ginen, eta ezinezkoa zela ikusi genuen" berretsi du Lagosek.

Aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte hartzen ari diren taldeak kirol klubak dira. "Eurek klub moduan hartzen dute parte eta gu ikastetxeak gara. Eta pandemiaren aurrean eskatzen digutena ez da gauza bera. Ikastetxeetan eskolaz kanpoko ekintzak bertan behera uztea eskatu zitzaigun, eta, beraz, hortik hasita ez genuen aukera askorik" nabarmendu du Lagosek.

Sakanan ez da jaialdirik egonen Iñigo Aritza eta Andra Mari Nafarroako Kirol Jokoen parte ez direla ariko ez dute soilik eurek nabaritutako; gure herrietan ere eragina izango du, urtero txapelketako jardunaldiren bat Sakanan jokatzen zelako. 2019ko Nafarroako Kirol Jokoen final handia, esaterako, Altsasun jokatu zen eta sekulako giroa egon zen.

"Azkenaldian bi jardunaldi antolatzen ziren Sakanan, bata Altsasun eta bestea Etxarri Arnatzen. Gure kirolak dira, gure herriko kirolak, eta jendeak beti oso ondo erantzun izan du. Bai

ikasleek, parte hartuz, eta baita ikusleek ere. Aurten bi urte beteko dira gure kaleetan txapelketa hau bizitzeko aukerarik ez dugula, eta pena da" aipatu du Mikel Senarrek.

Talde sakandarrek utzitako hutsune handia

Aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jokoen nahikoa deskafeinatua izango dira, parte hartze eskasarekin. "Pentsa herri kirolarien kopuruaren erdia edo erdia baino gehiago guk mugitzen genuela, Iñigo Aritzak eta Andra Mari. Eta hori izugarri nabaritu da aurten. Iaz, esaterako, Andra Marin 16 talde geneuzkan. Bi autobus joaten ginen. Erronda pila bat egiten ziren, eta aurten berehala lanak bukatuta daude. Baina hau da dagoena. Aurten, jardunaldi guztiak Antsoainen jokatuko dituzte, publikorik gabe, baina lotura bat jarri dute esku-ragarri eta Youtubean, zuzenean, herri kirolak jarraitzeko aukera eman dute" azaldu du Senarrek.

2022ra begira

Datorren urtera begira jarri dira Andra Marin eta Iñigo Aritza. "Egoerak ahalbidetu bezain pronto herri kirolaren murgilduko gara berriz. Gogo dugu egoera honi buelta emateko. Ez da urte erraza izaten ari; programazioa moldatzea tokatu zaigu, zenbait gauza ezin dira egin edo modu berezian egin behar dira... baina hortxe gabiltza" nabarmendu du Lagosek. "Ez dugu itxaropena galduko. Ikastolan gorputz heziketako saioetan herri kirolak lantzen ari gara, baina klase bakoitzean, burbuilak. Hurrengo urterako indarrak gordeko ditugu eta herri kirolaren indartsu bueltatuko gara berriz ere" espero du Senarrek.



2019ko Andra Mari ikastole-tako herri kirolaren taldeak Altsasuko finalean, Mikel Senar, Jexus Senar eta beste monitore eta laguntzaileekin batera.

KIROLDEGIA Kadeteen, haurren eta kimuen itzulera

Gutxika nolabaiteko normaltasun baterantz doa kirolaren mundua. Kategoriatu nagusien txapelketak izan ziren martxan jarri ziren lehenengoak, eta gutxika behereko kategorien txanda helduko da. Horrela, asteburu honetan hasiko dira kadeteen, kimuen eta haurren mailako kirol txapelketak, gure kirol taldeen gozamenarako. Beraz, Lagun Artea eta Altsasu futbol klubetako kadete eta haur mailako taldeek denboraldiari ekingo diote. Baita Altsasuko CBASK saskibaloitaldetako ere.

Bestalde, Nafar Kirol Jolasetako txapelketetan kirolari bakoitzeko ikusle bat egon ahal izango da.

1. MAILA AUTONOMIKOA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Beti Casedano - Lagun Artea 3-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Avance Ezkabarte 10

10 Lagun Artea 0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEA

16:30 Lagun Artea - Erriberri (Zelai Berri)

Puntuak pilatzeko zain

Lagun Arteak oraindik ez daki 1. Maila Autonomikoan irabaztea zer den. Beti Casedanoren kontra lakuntzarrek ez zuten gaizki jokatu, saiatu ziren, eta 2 eta 1 gerturatzea lortu zuen Unai Bakaikoaren golari esker, baina azkenean Kasedatik punturik gabe etorri ziren. Ea etzi etxean zorte gehiago duten.

ERREGIONALA GIZONAK

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Berriozar - Altsasu 3-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1 Gazte Berriak 6

7 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:45 Altsasu - Beti Kozkor (Dantzaleku)

Altsasuk Beti Kozkor hartuko du

Altsasuk Berriozarren kontra jokatu zuen. Guisadok eta Verak sartutako golei esker 3 eta 2 hurbildu eta partida berdintzear egon zen Altsasu, baina ez zuen lortu. Etzi Lekunberriko taldearen kontra ariko da.

"Segurua delako antolatu dugu Arbizuko Duatloia"

ANE LIZARRAGA ARBIZUKO UDALEKO KIROL ZINEGOTZIA

DUATLOIA Martxoaren 27an Arbizuko Duatloia jokatu da. 120 partaiderendako muga dago, eta asteazkenetik izena ematea zabalik dago

Maider Betelu Ganboa ARBIZU

Martxoaren 27an 23. Arbizuko Duatloia jokatu da, udalak antolatuta. Urte askotxo dira horiek.

Bai, eta pentsa tartean proba bertan behera utzitako urteak izan direla, eguraldi kaxkarra edo bestelako arrazoiengatik. Esaterako, iaz pandemiagatik jokatu gabe geratu zena.

Asteazkenean zabaldu zen Arbizuko Duatloirako izena ematea.

Bai, Nafarroako Triatloi Federazioan (www.navarratriatlon.com) edo www.rockthesport.com webgunean eman daiteke izena. Pandemiagatik aurtengo edizioan plaza mugatuak izanen direla erabaki du Arbizuko Udalak. Hau da, gehienez 120 partaide egotea. Horregatik erreleboen proba ez egitea erabaki dugu, aurreko astean Basaburuan egin zuten bezala. Izan ere, Nafarroan federatuta dauden triatletak eta duatletak dezente dira, eta erreleboak jarriko bagenitu, maila absolutuan federatuta daudenedako toki oso gutxi geratuko litzateke. Horrela, aurtengo proba izanen dira: Arbizuko Duatloia (8 km korrika -32 km bizikletan -4 km korrika), Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketarako baliagarria izango dena, eta Arbizuko Ibilbide Herrikoa (4 km-16 km-2 km), proba nagusiaren distantzia erdia duena.

Hortaz, gehienez 120 partaide onartuko dituzue.

Bai, Arbizuko Duatloian, hau da, proba nagusian, gehienez 90 partaidetako muga jarri dugu eta Arbizuko Ibilbide Herrikoian gehienez 30 partaidetako muga. Beraz, guztira 120 duatleta ariko dira. Arbizuko Duatloia martxoaren 27ko 15:30ean abiatuko da. Segurtasun neurriak eta distantziak betetzeko txandak aterako dira partaideak. Hau da, irteera kronometratuak egingo ditugu; 10 segundoro hiru partaide aterako dira.

Ibilbidean aldaketarik egin al duzue?



Ane Lizarragak azaldu duenez, segurtasuna betetzeko gauzak egin daitezke. UTZITAKOIA

"KULTURA SEGURUA DAGOEN BEZALA, KIROL SEGURUA ERE BADAGO, ETA APUSTUA EGIN DUGU"

Ibilbidea berbera izango da, baina aldaketa nagusia da pandemiarengatik irteera eta helmuga ez direla Kale Nagusian izanen, ezta bizikleta hartu eta uzteko trantsizioak ere. Burbuila bat egingo dugu Olatzea eta Kattukaren arteko eremuan, eta bertan egongo dira boxak edo trantsizio gunea, irteera eta helmuga eta baita zaindegi eta gainerako zerbitzu guztiak. Zonalde blindatu horretan soilik partaideak, epaileak eta antolatzaileak sartu ahaliko dira. Aurtengo helmuga eta irteera publikorik gabekoak izango dira eta irteera, helmuga eta trantsizioak ez dira plazan izango. Gainontzekoan, ibilbidea berbera izango da. Aldaketa bakarra izanen da txirrindularitza segmentuko bigarren bueltan. Bigarren buelta hori egiteko txirrindulariak elizatik Baxerri

aldera igotzen ziren, eta handik San Juan ermitarantz, Lizarragako katea igotzeko. Aurtengo, aldiz, Kale Nagusitik pasako dira txirrindulariak, herri erditik. Boxak Olatzean daudenez, txirrindulariak Kale Nagusitik

Mikel Astizen bigarrena

Larunbatean Basaburuako Duatloia jokatu zen eta Altsasuko Duatloi Krosaren ondorengo denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Mikel Astiz Erro ihabardarrak (1:12:03).

Altsasuko Duatloia

Martxoaren 20an Altsasuko X. Duatloia jokatu da, goizean Nafar Kirol Jolasak eta arratsaldean proba nagusia eta erreleboak. Martxoaren 15era arte eman daiteke izena (www.rockthesport.com), eta momentuz 220 partaidetik gora daude izena emanda.

pasatzea posible da. Gainontzeko guztian ez dago aldaketarik. **Jendeak, hortaz, Kale Nagusian, plazan eta ibilbideko beste edozein tokitan jarraitu ahal izango du proba.**

Bai, burbuilan izan ezik edozein tokitan jar daitezke, jakina, distantziak mantenduz.

Egun edozer gauza antolatzeko eskatzen diren neurriak zorrotzagoak dira, lan gehiago eskatzen dute. Zergatik erabaki duzue Arbizuko Duatloia antolatzeko?

Argi dago, aurtengo egoera dela eta, buruhauste gehiago dela edozer egitea, antolakuntza zaildu egiten delako. Baina iruditzen zaigu nolabait ere normaltasun egoera batean hasi behar du gulara eta egoera berezi honetan gauzak egiten ohitu beharra dugulara. Izen emateak murriztu egin ditugu, baina kirolaren aldeko apustua egin dugu. Kultura segurua dagoen bezala, kirol segurua ere badagoelako. Pentsatzen dut kirolariek, kasu honetan duatletek, asko eskertuko dutela Arbizuko Duatloia egiteko aukera izatea, aste bat lehenago martxoaren 20an Altsasuko Duatloia eginen den bezala eta aurreko larunbatean Basaburuan egin zen bezala. Pixka bat mugitzea da gauza. Segurtasunarekin gauzak egin daitezkeela erakustea. **Hortaz duatletek lehenbailehen izena ematera animatuko ditugu, tokiak mugatuak direlako.**

Bai, federaziotik esan digute ziurrenik plazak bete egingo direla, jendea gogotsu dagoelako eta tokia mugatuta dagoelako. Momentuz, gaur gaurkoz, soilik nafarrek eman dezakete izena, itxiera perimetralean gaudelako. Asteazkenean zabaldu zen izena ematea eta uste dugu aste bateko epean inskripzio asko eginen direla. Ildo honetan, aurtengo federazioak hartutako erabakietako bat da izena ematerakoan hasiera batean federatuek izango dutela lehen tasuna. Izena ematea bukatzen den aste horretan, egun bateko federatuek posible izango dute izena ematea, tokiak egonez gero.

Aurtengo kategoriatxikiko Nafar Kirol Jolasen jardunaldia hartuko al du Arbizuko?

Ez. Juniorren kategoriatxikiko antolatzearen asmoa genuen, baina plaza mugatuak izanda, absolutua egitea erabaki dugu. Dena den, federatuta dauden juniorrak Arbizuko Ibilbide Herrikoian apuntatu daitezke.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU EH Bilduren
II. Kongresua. Ponentzien
aurkezpena.
Hizlaria: Adolfo Araiz.
18:30ean, lortia kultur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal Presoak Euskal Herrira
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 13

IZURDIAGA Bertako barietateak,

Sakanako agroekologia eskola.
Neguko zaintzak frutagintza
ekologian. Ikastaro teoriko-
praktikoa eta bertako arbola
txeratuaren banaketa.
Irakaslea: Carlos Gil. Labana
zorroztua eraman.
09:30etik 14:30era eta 16:30etik
18:30era, elkartean.

ALTSASU Gatazken konponketa
ikastaroa. 12-30 urte. 12 euro.
10:00etatik 14:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ COVID19 +
urrunketa = umezurtz ekitaldia:
Porrotx, dantza eta musika.
Eraman zuen mezua motxiladun
haurrentzat. Sarek antolatuta.
11:30ean, plazan.

BAKAIKU Plan estrategikoaren
jarraipen bilera.
18:00etan, udaletxeko goiko
gelan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Hope gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Ostirala 12: 19:00
Igandea 14: 19:30

Antón, su amigo y la revolución
rusa gaurkotasunezko film
Osteguna 18: 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Entre nosotras zineforum
filmaren emanaldia
Igandea 14: 19:30

El silencio de otros zineforum
filmaren emanaldia
Osteguna 18: 19:00

OLAZTI M8. **Estoy rara** Las
Raras umore bikotearen
ikuskizuna. Sarrerak: aurretik 6
euro / egunean 8 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Haize Berriak
bandaren Musak kontzertua.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Denak etxera
manifestazioa. Sarek antolatuta.
20:00etan, plazan.

IGANDEA 14

ALTSASU Mendaurrera irteera.
Altsasuko Mendigoizaleak taldea.
08:00etan, egoitzatik.

OLAZTI Naturanitzean gozaten:
Martxa Morea Batueko eta
Balengo iturrietatik. Ipar
marxako teknikaren ikastaro
laburra eta 4 orduko ibilbidea.
12 urtetik gora. 15 euro. Zerbait
morea jantzita eraman.
10:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasuko Musika
eta Dantza Eskolaren dantza
emanaldia: **Gure doinuak.**
12:30ean, lortia kultur gunean.

ARBIZU **Leziza ubeldearen**
alde, isurketen kontra Leziza
Bizirik plataformak deitutako
manifestazioa.
13:00etan, plazatik.



ARBIZU. M8. **Gorputz grafiak**
erakusketa. Sakanako
Mankomunitateak antolatuta.
Martxoaren 5etik 24ra.
Udaletxean.

ALTSASU **Liburu eremua, eremu**
librea erakusketa.
Martxoaren 5etik apirilaren 23ra
arte. Astelehenetik ostiralera
17:00etatik 20:00etara,
larunbatetan ikuskizunaren
aurretik eta igandeetan 18:30etik
19:30era, lortia kultur gunearen
erakusketa aretoan.



ETXARRI ARANATZ Ikastolak
herriari hitzaldi zikloa:
Euskararen motibazio tailerra.
UEMAren eskutik. Izena ematea:
izenematea@andarmariikastola.eus.
18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN **Bi urte, lau**
hilabete eta egun bat
dokumentalaren emanaldia eta
Gaizka Aranguren eta Txape
Iriartearekin solasaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal
Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 15

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OLAZTI M8. Hitzaldia: **Tiempo y**
sostenibilidad de las vidas: una
reflexión en torno al cuidado,
el empleo y la participación
sociopolítica.
Hizlaria: Marina Sagastizabal.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Altsasuko Musika

eta Dantza Eskolaren ikasle
helduen kontzertua.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 17

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ
ETA ALTSASU **Osasun etxea**
zaindu! Elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxeetan.

HIRIBERRI ARAKIL Sagarrondo
helduen bertxertatzea.
Irakaslea: Jose Miguel Astiz.
16:30etik 18:30era, plazan.

IRURTZUN **Aitarene etxea**
literatura solasaldia eginen du
irakurle taldeak Karmele Jaio
idazlearekin, euskaraz.
Izena emateko: 616 017 997.
Irakurle taldeak, Pikuxarrek eta
Aizpeak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 18

ALTSASU Euskarazko irakurketa
taldeak Ana Galegon idazlearen
Gelditu zaitzte gurekin liburuaren
inguruan hitz eginen du.
18:00etan, lortia kultur gunean.

Bazkide Zoz keta

1. SARIA
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

2. eta 3. SARIAK
LACTURALE: Esneki lotea





Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Etxarri Aranatzen, Enfermogurutze dermioan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 finora.

Bi garaje plaza salgai Etxarri Aranatzen: oso prezio onean. Deitu 661 186 576

ZOZKETA

Elkartasun zozketa: Ziordia running taldeak Rett sindromea, gaixotasun arraroa, duen San Adriango 6 urteko neska baten aldeko elkartasun zozketa antolatuta du. Txatelen salmentarekin haren etxeko komunean aldagaillua jarri nahi dute, baita Bearendako propio egokitutako moldea duen aukla erosi nahi dute udarako. 75 sari zozketatuko dira. Txartelak euro batean erosi daitezke taldeare sare sozialetako profilen bidez, 620 064 534 telefonoaren bidez (Jose Ramon), Altsasuko JJ tabernan eta Ziordiko Kixkur ile apaindegian (apirilean).

LEHIAKETA

Sakanako Gozamenez film laburren lehiaketa: Hilaren 14ra arte eman daiteke izena: Inxostia-punta@altsasu.net edo 608 617 778. Film laburak apirilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Maia-

tzaren 5etik 10era gazteen bozketa egingen da, gogoko lana aukeratzeko. Eta sari banaketa maia-tzaren 14an izanen da. Informazio gehiago www.altsasu.eus webgunean. Sakanako Gozamenez eta Altsasuko Udala.

OHARRAK

Odol emateak Olaztin: martxoaren 18an, 17:00etatik - 20:30ra.

Pausoka haur eskola: Uharteko Araki Udalak jakinarazi du matrikulazio epea hilaren 15era arte zabalik dagoela. Ikastetxe-tik pasa informazioa jaso edota matrikula egitera.

Txiribulo haur eskola: Altsasuko udal haur eskolako matrikulazioa martxoaren 15era arte zabalik egonen da. Heldu den ikasturtean 2019, 2020 eta 2021. urteetan jaiotako haurrak hartuko dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, gurasoek hiru ordutegi dituzte aukeran (7, 6 eta 4 ordukoak), jantoki zerbitzua dago eta ordainketa gurasoen errenta aitorenaren araberakoa da. Informazio gehiagorako: www.altsasu.eus.

Altsasuko ludoteka aste santuan: Ikasleen opor garaian familia eta lana kontziliatzen laguntzeko, Txantxari udal ludotekak Aste Santurako eskaintza prestatu du apirilaren 6tik 9ra. Bi ordutegi daude. Lehenik, 08:30etik 13:30era. Ordutegi hori

beteko ez balitz, bigarren aukera 11:00etatik 13:30era izanen da. Ludotekara seme-alaba eraman nahi dituztenek haien izenak eman beharko dituzte martxoaren 10etik 16ra. Horretarako, 012 edo 948 012 012 telefonoetara hots egin beharko dute, edo www.altsasu.eus web orriaren bidez izen ematea egin. Argibideak ludotekan ematen dituzte, 948 467 471 telefonon edo ludoteka@altsasu.net e-posta helbidean.

Sakana Gasteiz joan-etorria: goizero Sakana-tik Gasteiza joan-etorrian dabilen norbaiten bila nabil, ikastera joateko garraio gabe gelditu naiz eta. 688 688 868 Jokin.

1978ko sanferminak: Sanfermin es 78 Gogoan! elkartek eta Iruñeko Peñen Federazioak elkar-lanean gertaera haiei eta, batez ere, Peñen Ikerketa Batzordeari loturiko dokumentazioa eta informazioa berrikusteko proiektua martxan jarri dute. Gertaerakin loturiko informazioa eta, bereziki, Ikerketa Batzorde hark egindako lanarekin loturikoa bildu eta digitalizatzeara da helburua. Ikerketa Batzorde harekin eta egun haietako gertaerakin loturiko informazioa eta/edo dokumentazioa duen pertsona guztiei haiekin harremanetan jar daitezten eskatu dute. E-posta: info@sanfermines78gogoan.org. iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Irai Higuero Calderon**, otsailaren 23an Etxarri Aranatzen
- **Laila Arratibel Gogorza**, martxoaren 6an Etxarri Aranatzen


HERIOTZAK

- **Joaquina Anso Arbizu**, martxoaren 6an Bakaikun
- **Tomas Roseras Lopez**, martxoaren 6an Altsasun
- **Milagros Goikoetxea Sotil**, martxoaren 7an Arbizun
- **Eugenia Calvo Lopez**, martxoaren 9an Altsasun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 12




Larunbata, 13



Igandea, 14



Astelehena, 15



DUELA 25 URTE...



Felipe Gorritiren heriotzaren 125. urteurrena

Felipe Gorriti Osanbela 1839ko agorrilaren 23an jaio zen Uharteko Arakilen eta 1896ko martxoaren 12an hil zen Tolosan. Lehen ikasketak aitarengandik jaso ondoren, Iruñean, eta Hilarion Eslabaren esanetara trebatu zen musikaria. 1859 eta 1867 urteetan artean Tafallako organo jole nagusi postua lortu zuen. Han hasi zen musika sortzen, gerora bere lanekin, Parisko nazioarteko lehiaketa bat zaspitan irabaziko zuen. 1867an Tolosako kapera maisu eta organo jole nagusi izendatu zuten. Bereziki erlijio musika landu zuen. Berea da *Agur Jesusen ama* ezaguna.

ESKELA



Miguel Angel Artieda Gil

Urdiain, Bakaiku eta Iturmendiko mediku ohia

Zuk emandakoa ez dugu inoiz ahaztuko

Etxarri Aranazko Osasun Etxeko Lankideak

Ororbian, 2021ko martxoaren 8an

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZA barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Album ilustratuen munduan barneratuz

Album ilustratu bat haurrekin batera irakurtzea oso onuragarria dela azaldu du Karla Fernandez de Gamboa Vazquez irakaslea. Matxoaren 30ean, 'Album ilustratuak elkarrekin irakurtzen' hitzaldi-tailerra egiten du Arbizuko Kattuka haur eskolan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Album ilustratu bat liburu mota bat da, eta istorio bat kontatzeko aldi berean bi kode erabiltzen ditu: testu idatzia eta ilustrazioa. Bi elementuak elkarren mende-koak dira. Aditu askorendako album ilustratu bat haur eta gazte literaturak literaturari egindako ekarpen bakarra dela aipatu du Karla Fernandez de Gamboa Vazquezek. Fernandez de Gamboa album ilustratuetan aditua, hezkuntza doktorea eta EHUko irakaslea da: "Nahiz eta gaur egun album bezala ulertzen dugunaren oinarria 1960ko hamarkadan sortu, gurean oraindik



Karla Fernandez de Gamboa irakaslea. UTZITAKOA



Udaberrian jantzeko aholkuak

Udaberria urteko urtarorik hobereena da hotzetik eta berotik babestuko zaituen arropa koloretsu eta alai erabiltzeko. Modu sinestezinean jantzi nahi baduzu, jarraitu post hau irakurtzen. Jarraian, udaberrian jantzeko aholkurik onenak emango dizkizut.

Jantzi ilunak udaberrian?

Udaberria arropa koloretsuak jantzeko modurik onena da, baina itxaron! Udaberrian kolore ilunak jantzea posible al da? Erantzuna baiezkoa da. Izan ere, udazkeneko jantziak oso lagungarriak izan daitezke. Baliteke zaila izatea udaberrian kolore horiekin jantzea, baina, egia esan, uste baino errazagoa da. Nire ustetan eta nire armairuan, beltzak beti egon behar du, urtaroiari garrantzi gehiegirik eman gabe.

Gogoratzen al duzu udazkenean eta neguan bakarrik erabiltzen zenuen lehoinabarrezko estanpatutako beroki hori? Orain udaberrian ere erabili ahal izango duzu, soineko beltz batekin edo zatikako

jantziekin konbinatzen baduzu. Ziur denen begiradak zugarri eta egongo direla.

Kolore ilunek bikain konbinatzen dute goiko jantzi koloretsu, beroki eta blazerrekin. Anima zaitez denboraldi honetan tonu neutroetan oinarrituz, eta argitu aurpegia koloretako era guztietako jantziekin, zure larruazalaren, ilearen eta begien tonuarekin alderatuta.

Zure armairuko ezinbestekoak: Eguzkitako betaurrekoak, ez dute koloretsuak izan behar, halaber ilunak oso aukera ona dira. Hemengo udaberriak ez dira oso beroak eta nahiko irregularrak gainera, beraz ezinbesteko prenda izanen da plimetako beroki bat, fina hori bai, eta hau koloretsua bada ezin hobeki. Gabardinak, udaberriko armairuko atso ezagunak, tronutik jaisteari uko egiten dio, oraingoan, ohiko diseinutik haratago doazen bertsioekin mantentzen du. 2000ko hamarkada, indartsu itzuliko da denboraldi honetan, udaberriko cropped tops eta bularrekoetan nonahikotasunari, tiro baxuko galtzak, praka zabalak, txandalezko prakak. Itsaspeko mundua, blusak lazadaz lotu, soineko drapeatuak, fluor kolore hain klasikoei eta itsas izar formako paparrei esker. Leitmotiv, (azpitik

eroso eta gainetik elegante) pandemiaren eta telelanaren gorakadaren ondorio zuzena. Konbo horri keinu egiten dizkioten bildumak ez dira gutxi. Estetika horrek kontraposizio ederra iradokitzen du goiko parteen artean, jantzi konponduak eta sofistikatuak eta beheko partean, etxean egoteko diseinu eroso eta lasaiekin. Kolorea: arrosa, zuria, laranja edo urdina udaberriko protagonista kromatiko handiak izan diren arren, arrosa da indar gehienarekin sartzen dena. Berdeak denboraldiko pisu guztia izango zuela uste genuenean, uda alderantz arrosa gehiago ikusiko dugu, haurtxo arrosatik fluorera doazen intentsitate ezberdinetan, fuksiatik pasatuz. Kontraesana: romantizismoa, minimalismoaren aurka. Loreak eta lumazko apaingarrioparok txirindulari sareekin bizi dira, leggingak denboraldi honetan ikusi dugun fantasia eta funtzionamenduaren arteko banaketa. Baina look berean jantzi dramatikoarekin batera bizi diren jantzi funtzionaletatik harago. Poltsak: XL tamainako poltsak; urteroko mini diseinu tipikoak denboraldiko gakoetako bat izaten jarraitzen duten arren, 2021eko udaberri-uda honetan XL tamainako poltsak izango dira protagonistak.

tradizio luzerik ez du". Martxoaren 30ean, 17:30etik 19:00etara *Album ilustratuak elkarrekin irakurtzen* hitzaldi-lantegia egiten du Arbizuko Kattuka haur eskolan Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

Ikastaroan parte hartzen dutenek 0 eta 6 urte bitarteko umeendako gomendagarriak diren albumak aurkezteko irizpideen inguruan hausnartuko dute eta, horretarako, "kalitatezko hainbat adibide" irakurriko dituzte. Albumak irakurtzerakoan kontuan hartu beharreko elementuak azalduko ditu Fernandez de Gamboak ere, "eta haurrekin batera irakurtzen dugunean nola jardun behar dugu" landuko dute.

Albumak

"Uri Shulevitze esaten zuen bezala, albuma irratitik irakurri ezin den liburua da". Albumaren istorioa berez osotasunean ulertzeko bai ilustrazioak bai testu idatzia irakurri behar direla azaldu du Fernandez de Gamboak. Hala ere, ilustrazioaren eta testuaren arteko interrelazioa ez da desberdintzen duen ezaugarri bakarra: liburuaren elementu materialek funtzio narratiboa izan dezakete. "Album batean denak kontatzen du".

Haurrek, gazteek eta helduek album ilustratuekin gozatu dezakete aipatu du irakaslea. "Ez dezagun ahaztu nahiz eta irakurle inplizitua haur edo gazte bat izan, helduok garela liburu horiek aukeratzen, erosten eta haiei eskaintzen dizkiegunak". Liburu batzuek jorratzen dituzten gaietatik edo ikuspegitik irakurle gazteei eta helduei zuzentzen dira ere.

Bestetik, album ilustratuak haurrekin batera irakurtzea oso onuragarria dela azaldu du Fernandez de Gamboak bai haurraren garapenerako bai haien literatura gaitasuna garatzeko. "Baita heldu horrekiko harreman afektiboa eta komunikazioa aberasten dituelako. Ohikoa da haurrek liburu bat behin eta berriro irakurtzea eskatzea: hori gertatzen da ez bakarrik liburu hori bereziki gustatzen zaielako, baizik eta une horretan helduak arreta osoa eskaintzen diolako ere bai".

Elkarrekin

Irakurketa partekatua haurraren izaeraren eta adinaren arabera aldatzen dela azaldu du Fernandez de Gamboak. "Oraindik irakurtzen ez dakien haur baten

kasuan, adibidez, heldua izanen da testu idatzia irakurriko duena, eta elkarrekin ilustrazioak interpretatuko dituzte". Albumen kasuan irakurketa ariketa aktiboa da, eta irakurketa erritmo desberdinak eskatzen ditu.

Album ilustratuen gaien artean "denetarik" aurkitu daiteke: eguneroko istorioak, fantasiakoak, bidai "iniziatikoak", abenturak, aldarrikapen sozialak eta abar. "Haur eta gazte literatura bezala, albumetan gaia oinarritzkoa da, baina gai hori nola kontatzen den da garrantzitsuena; nola egokitzen den irakurlearen ulermen eta literatura gaitasunera". Besteak beste, heriotzari, depresioari, gerrei, arrazakeriari, diskriminazioari eta abarri buruzko albumak aurki daitezke.

"Ez dakit zeintzuk diren merkatuaren joerak, baina sinetsi nahiko nuke album arrakastatsua albumak liburu mota bezala eskatzen dituen aukera narratiboez abilezia handiz balitzen dena dela". Hortaz, irakurleei esperientzia literario eta artistiko "paregabea" eskaintzeko gaitasuna duena.

Ikasten

Album ilustratuak irakurtzeko denbora eta gogoa "bakarrik" behar direla esan du irakaslea, "lehen aipatu bezala, xehetasun guztiei erreparatzeko behar dugun denbora hartu behar dugu". Albuma behin eta berriro irakurri daitekeen liburu mota bat denez, ohikoa da irakurketa bakoitzean xehetasun gehiagoz "ohartzea edo interpretazio maila desberdinaz" gozatzea, Fernando de Gamboaren iritziz.

Album ilustratuak elkarrekin irakurtzen ikastaroan albumak irakurtzerakoan kontuan hartu beharreko elementuak eta haurrekin nola jardun landuko da, baita albumak aurkezteko irizpideak ere aipatuko dira. Horretarako, modu praktikoa "kalitatezko" hainbat adibide irakurriko dituzte parte hartzaileek Fernandez de Gamboarekin batera. Haur literatura gustuko duen edonork parte har dezake, baina batez ere 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin aritzen diren guraso, irakasle, hezitzaile, liburuzaire eta bitartekari zuzenduta dago. Irakurketa esperientzia partekatuzko "gune paregabea" izanen dela gaineratu du. Lantegian parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da euskara1@sakana-mank.eus helbidean.



'Liburu eremua, eremu librea' erakusketaren mustutzea lortia kultur gunean.

Liburutegiaren historiaren tunela

Altsasuko liburutegia Nafarroako Liburutegi sarean sartu zen lehenengo liburutegia izan zen, Miranda de Argakoarekin batera, duela 70 urte. Sarearen eta Nafarroako liburutegiaren 150. urteurrena ospatzeko 'Liburu eremua. Eremu librea' erakusketa mustu dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1934. urtean liburutegi bat irekitzeko baldintzak liburuzain boluntario bat izendatzea, liburutegia lau orduz irekita izatea eta Udal Liburutegi Publikoa (gaztelaniaz) jartzen zuen kartel bat egotea ziren. Espainiako II. Errepublikaren garaia zen, eta Espainiako Gobernuak garrantzia handia eman zion hezkuntzari eta kulturari. Herria kulturalki ere elikatu behar zela uste zuten. Altsasun baldintza horiek beteta lehenengo liburutegia ireki zuten gaur egun Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan, garai hartan udaletxea zen. 1950. urtean Nafarroako Liburutegien Sarea sortu zen eta Altsasukoa eta Miranda de Argako sarean sartzen lehenengoak izan ziren.

2020. urtea urte garrantzitsua izan zen Nafarroako Liburutegien dako, izan ere, Sarearen 70. urteurrena ez ezik, Nafarroako Liburutegi orokorrak 150 urte bete zituen. Ospatzeko *Liburu eremua. Eremu*

librea erakusketa mustu zuten Iruñean. Iñaki Apeztegia Nafarroako kultur zuzendari orokorrak azaldu duenez, "erakusketa hau ezin da ulertu ibiltaria ez bada". Eta bere lehenengo geltokia Altsasun izan da. Ostiralean Iortia kultur gunean mustu zuten eta apirilaren 23ra arte, Liburuaren egunera arte, zabalik egonen da. Ondoren, San Adrianen egonen da.

Liburuak gordetu

Azalpenezko taulen bidez Nafarroako Liburutegiaren eta Liburutegien Sarearen historia biltzen du erakusketak. Hiru etapa desberdintzen dira: gordetzea, konexioa eta laguntza, erakusketan hiru arkuekin desberdintzen direnak. 1810. urtetik Nafarroako Liburutegiaren "lehenengo hazia" jarri zutenetik, gaur egun arte. Jaione Vicente erakusketaren komisarioa da eta mustutze ekitaldian bisita gidatua eskaini zuten. "XV. mendean elizgizonek

liburuak kopiatzen, gordetzen eta zaintzen zituzten". Pixkanaka geroz eta jende gehiago irakurtzen ikasten hazi zela azaldu zuten, eta gordetu ez ezik liburuak elkarbanatzen hasi ziren. "Historian zehar liburutegiak dugun harremana aldatu da, laguntza harreman bat bihurtu arte".

Liburutegien hasierako helburua, beraz, liburuak gordetzea zen. Beraz, XIX. mendean hasieran elizaren desamortizazioa izan zen eta elizgizonek zaintzen zituzten liburu gehienak herrialde osotik banatu ziren. Liburu horiek biltzen hasi ziren eta horrela jarri zuten 1810. urtean liburutegiaren "lehenengo hazia".

Urteekin liburuak bilduma handituz joan zen heinean, beste leku bat bilatu behar izan zuten eta San Jose plazako bigarren irakaskuntzako institutua eraman zituzten 1870. urtean.

"Beste 40 urte pasa ziren eta II. Errepublikaren gobernuak uste

zuen hezkuntza ezinbestekoa zela pobrezari aurre egiteko. Liburutegi bidaiariak deitutakoak antolatzen hasi ziren". Liburutegi bidaiari hauek 100 edo 300 bat liburuz osatutako kutxa batzuk ziren, eta herriz herri eramaten zituzten. Nafarroan 81 izan ziren, haietako bat Altsasun. Maria Moliner izan zen ideiarene sustatzaileetako bat: "Hezkuntza eskubide bat da".

Lehenengo liburutegia

Kontestu honetan sortu zen 1934. urtean Altsasuko liburutegia. Lehenengo liburuzaina Enrique Goikoa izan zen, 27 urteko miasua. Liburutegia izateko baldintzak izenburu bat izatea, liburuzain boluntario bat egotea eta liburutegia lau orduz irekita izatea zen, eta Goikoak egunero 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara irekitzen zuten.

Altsasuko liburutegian hainbat dokumentu "altxor bat bezala" gordetzen dituzte. Altxorak dirrelako. Esaterako, 1933ko liburutegiaren sorreraren akta originala erakutsi dute, baita 1931. urteko Batzorde Pedagogikoen txartel bat ere. "Udalak oso argi zeukan kultura sustatu eta bultzatu behar zuela. Liburutegiaren batzordea sortu zenetik liburutegia ireki zen arte urte bakar bat pasatu zen". 300 libururekin hasi zirela azaldu du Elena Arístorena liburuzainak. Gaur egun, 40.000 pasa biltzen ditu Altsasuko liburutegiak. Erakusketan ere gazteen "eskakizunen liburuak" ikus daiteke: "Izen abizenak agertzen dira, eta familiak ezagutzen ditugu. Oso bitxia da". 12 urteko Luis Salegik *Me gustaría leer la obra Tarzán de los monos* idatzi zuten 1930ko hamarkadan. Liburutegian bildu zuten lehenengo liburu lotearen lehenengo liburuak, garaiko euskarazko eskola txartel bat, fitxak, karnetak, erregistro liburuak... Altxor bitxi asko jaso dituzte liburutegian.

Konexioa

Altsasuko liburutegia mustu eta bi urte beranduago 1936ko estatu kolpea izan zen, eta harekin gerra eta zentsura. Liburutegie-

**1934. URTEAN
ALTSASUKO
LIBURUTEGIA MUSTU
ZUTEN, ETA 1950AN
SAREAN SARTU ZEN**

tan egon zitekeen liburuak erabakitzeko liburuak argitaratzen zituzten ere, eta haietako bat Altsasun gordetzen dute ere. 2600 liburu inguru aztertu ziren eta gorritz markatutakoak erre zituzten. "Ez zen inor libratu". Gainera, bigarren irakaskuntzako institutua txiki gelditu zen, eta liburutegia Carlos III. Etorbidera leku aldatu zuten. Luis del Burgori liburutegiaren berrantolaketa egitea eskatu zioten, eta bera Bartzelonakoan oinarritu zen lana egiteko. Orduan sortu ziren lehenengo sareak.

Liburutegien sareak sortzeko udalak lokal bat jarri behar zuten eta ondoren Nafarroako Diputazioak liburutegi bihurtzeko dirua ematen zuten. Baina ez zegoen irizpide jakirik, Vicentek azaldu duenez: "herri oso txikiak liburutegia zuten eta handiagoek ez". 1950. urtean sarea sortu zen Altsasuko eta Miranda de Argako liburutegiarekin. Garai honetan liburuzainak emakumezkoak izaten hasi ziren, liburutegiak maisuaren eta hezkuntzaren iruditik aldendu nahi dutelako. Entrenimendu bat bihurtzen da, eta filosofia paternalista batetik egiten zen: "Nekazal arloko jendea lagundu behar zela esaten zuten". Liburuzainen lana 1970ko hamarkadan hasi zen profesionalizatzen.

Ezagutza

Carlos IIIeneko liburutegia ere txiki gelditu zen eta San Francisco plazako eraikinera pasa zuten, handiagoa zenez, pentsatuz bizitza osorako izango zela. Baina hori ere txiki gelditu zen eta duela hamarkada bat inguru Nafarroako Liburutegi Orokorra berria zabaldu zuten.

1983. urtean "iraultza" bat izan zen liburutegien munduan: liburuak hartzeko aukera zabaldu zen. Ordura arte, liburuak edo dokumentuak bertan irakur eta erabili zitezkeen. "Fitxa betetzen zenuen, liburuzaina liburu hartzerako joaten zen, ekartzen zizun, liburutegian kontsultatzen zenuen eta gero itzultzen zenuen". Aldaketa oso garrantzitsua izan zen maileguaren zerbitzua martxan jartzea.

Azkenengo fasea 2000. urtean hasi zen irakurketa klubek sorrerarekin. Horrekin jakintza elkarbanatzen da eta liburutegiak laguntza tokiak bihurtzen direla azaldu du Vicentek. "Liburutegian natura edo ingurugiroa aldatzen da. Erabiltzaileek eza- gutza sortzen dute".

"Gure arteko ahizpatasuna irudikatuko dugu"

Aurtengo Lilasterketa ezberdina izango da: martxoaren 21ean goizeko 9:30ean abiatuko da Ziorditik eta 17:30ak aldera despedituko da Irurtzunen, Sakana oinez eta bizikletaz zeharkatuta. Izena ematea aurretik egin behar da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

1 Martxoaren 8ko ekitaldien barruan bere tokia egin du Lilasterketak. Aurtengoa 8. edizioa da, eta formatu berria du, oinezko martxa izango delako.

Bai, Lilasterka oinezko martxa izanen da eta herriz herri ibiliko gara. Aurretik, Altsasuko Udalak 6 ediziotan antolatu zuen Lilasterketa. Altsasun egiten zen lasterketa ez lehiakorra zen, korrika, bizikletan, patinetan edo oinez egiten zena. Joan den urtean, Mank-eko Berdintasun Zerbitzua sortzarekin batera, 7. Lilasterketari Sakanako ikuspegia emango geniola erabaki genuen, urtero toki ezberdin batean ospatuko genuela. Baina pandemiagatik ez zen gauzatu.

2 laz asteburu honetan zen egitekoa Lilasterketa, baina konfinamendua hasi zen.

Martxoaren 15ean zen ospatzekoa Altsasun, eta hain justu egun horretan etxeratzea hasi zen.

3 Lilasterketa Ziordian hasi eta Sakana osoa zeharkatuz Irurtzunen despedituko den oinezko martxa izateko pausoa eman duzue. Zein da helburua?

Ekimenari Sakanako ikuspuntua ematea, baina batez ere herrietako emakumeak animatzea. Emakume bakoitza bere herritik abiatu eta hurrengo herriko zatitxo hori oinez egitea erakargarria izango litzatekeela iruditzen zitzaigun. Eta bide batez, herriz herrikako emakumeen ahizpatasun hori irudikatu nahi genuen. AEKko Korrikan lekukoa pasatzerakoan sortzen den zirrara hori berezia da, eta hortik etorri zen herriz herri egitearen proposamena. Ideia Berdintasun Batzordean eta herrietan zabaldu genuenean emakumeek oso ongi hartu zuten.



Oihana Gallo eta Idoia Goikoetxea berdintasun teknikariak. UTZITAKOIA

4 Lilasterketa martxoaren 21ean abiatuko da Ziorditik, 9:30ean.

Bai. Kartelean Lilasterketa herri bakoitzean zein ordutan pasako den jasoa dago. Arruazun geldialdia egingo da, 14:00etatik 15:30era. Lilasterketa Irañetaraino oinez joango da, baina Irañetatik Etxarrenera bizikletaz zeharkatuko du Arakil, oinez egiteko nahiko luze geratzen zelako. Gainera, Arakilgo emakumeen taldean herriak bizikletaz lotzeko ideia zuten buruan eta, hortaz, bi ideiak uztartu ditugu. Azken bi etapak, Etxarrendik Irurtzunerara, oinez izango dira.

5 Norberak nahi duen zatia egin dezake, edo emakume bakoitzak bere herritik hurrengo herrira arteko zatia egin behar du?

Bete behar diren segurtasun neurriak direla eta, printzipioz emakume bakoitzak bere herri-

ko etapa egingo du: bere herritik hasi eta hurrengo herriraino. Hurrengo herrira iritsi eta tokia egonen balitz, jarraitu lezake. Hamabosnaka joan beharra dago.

6 "Lilasterketan, Sakanako Emakumeak Martxan!" da leloa.

Bai, lelo hori duen pankarta eramango dugu, Sakanan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan, sakanarren jatorri aniztasun horri erreferentzia egiteko.

7 Osasun neurriak direla eta Lilasterketan aritzeko aurretik izena eman beharra dago, ezta?

Bai, dagoeneko 108 emakume izena eman dute. Bitxia da; herri gehienetatik izena eman dute eta oso-oso pozik gaude. Herri txikiak, ertainak, handiak... guztietan animatu dira emakumeak. Izena ematea bi berdintasun zerbitzuetan egin daiteke, martxoaren 19a

baino lehen: Altsasuko Berdintasun Zerbitzuan (berdintasuna@altsasu.net edo 628 328 593) eta Mank-eko Berdintasun Zerbitzuan (berdintasuna@sakana-mank.eus edo 660 384 328). Izena, herria eta kontaktua eman beharko dute.

8 Momentuz 100 emakume baino gehiago daude, eta espero dezagun kopuru horrek gora egitea. Gure aurreikuspen onenak gainditu dira. Peto more gehiago eskatu behar izan ditugu. Pozgarriena da herri guztietatik animatu direla, eta denetariko adinekoak: jaioberriak, aulkitxoan joango direnak, gazte asko, adinekoak...

9 Lilasterketan lekukoa egonen da?

Ez da lekuko fisikorik egongo, sinbolikoa baizik. Herriz herri-

kako emakumeen arteko saretze edo ahizpatasun hori irudikatu nahi dugu. Txanda aldaketarako minutu batzuk gorde dira, emakumeek beste herrietakoei agur esateko, irudiak hartzeko...

10 Lekukoa ez, baina bukaeran Irurtzunen mezua irakurri eta zabalduko duzue.

Bai, azken ekitaldia Irurtzunen izango da, 17:30ak aldera. Argi geratuko da Sakanako emakumeak martxan gaudela.

11 Lilasterketan izena ematera animatuko ditugu emakume sakandarrak. Igandeko paseoa izan daiteke, baina giro beroagoan...

Bai, anima daitezela! Herri bakoitzean arduradun bat egonen da guztia bideratu eta petoak banatzeko.